

ARGIA

Alokairuen igoeraren aurrean

Berlin etxejabe handien

200.000 etxebizitza

nazionalizatze borrokan

Andrej Holm
soziologoarekin
elkarrizketa



#2.643 | 2019/05/12 | 3,90 €



**Mozambique
hondoratu dute Idai
eta Kenneth zikloiek**

10 | NAZIOARTEA



**Navarra Suma
oldarrerako prest**

32 | M26 HAUTESKUNDEAK



**Silvia Federicirekin
elkarrizketa**

34 | FEMINISMOA

Zerukotik lurrekora

Emanaldi guztiak: 📍 **San Telmo Museoa Donostia** 🕒 **19:00**

Maiatzak 21 asteartea

Koldo Izagirre

*Mendearen umek
munduari desafio*

Hitzaldia




Maiatzak 22 asteazkena

**Antton Olariaga
Joseba Larratxe**

100 urte, ehunka irudi

Hitzaldi ilustratua



Maiatzak 24 ostirala

**Joxemari Ostolaza 'Xalbardin'
Josu Landa**

Malores Etxeberria

Enpeinatzea ez bada libre

Errezitala



Maiatzak 28 asteartea

**Elixabete
Garmendia**

*Euskarazko kazetaritzaren
intraistoria bat*

Hitzaldia



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | GAIZKI ERRANKA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:
UMBRUCH BILDARCHIV

Iritziak

- 17 | ESTITXU GARAI ARTETXE
- 18 | KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
- 19 | NORA BARROSO
- 19 | ITZIAR BARDAJI GOIKOETXEA
- 20 | JON ALONSO
- 21 | REBEKA UBERA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENeko EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
MARIA EUGENIA R. PALOP
- 54 | BERANDUEGI



JOSU SANTESTEBAN

34 | SILVIA FEDERICI
Iruñean izan da militante feminista eta bisita aprobetxatuz, Katakarak argialetxeak euskaratu berri duen *Mundua berriz liluratuz: Feminismoa eta komun en politikak* bere lanaz jardun du.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL
'Idai' eta 'Kenneth' zikloiak: Klima zoratua hondoratu du zor ustelek itotako Mozambique
Pello Zubiria Kamino

12 | AINARA AZPIAZU ADURIZ
"Marrazketa tresna ezin hobea da edozein ogibidetan aritzeko, baina ez da trebezia moduan lantzen"
Danele Sarriugarte Mochales

22 | ETXEBIZITZA ESKUBIDEA
Berlin: Nola berreskuratu etxejabe handien pisuak herritarrentzat?
Lander Majuelo

28 | ANDDE SAINTE MARIE
"AHT-ren dosierra zerotan dago, epe ertainean ez da mugituko"
Mikel Asurmendi

32 | POLITIKA
Navarra Suma oldarrerako prest
Xabier Letona

44 | MAITE LARBURU
"Norbera bere norberarengana hurbilarazi nahi izan dut, ez disko intimo bat egin"
Lander Arretxea Bereziartua

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Fernández, Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartzandiandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde Salmenta
Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.
Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO
Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Ametzagaña taldeko kidea da Argia honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuk lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNDUA)

GERRA HEMEN HASTEN DA


LA GUERRA EMPIEZA AHORA


Ongi Etorri
Errefuxiatuak



Besarkada erraldoia

Europako hauteskudeen atarian, Herrien Besarkada irudikatu dute Europako hainbat txokotan. Gurean, Biarritz, Donibane Lohitzune, Hazparne, Iruñea eta Durangon (irudian). Migratzaileen eskubideak aldarrikatu, faxismoa arbuiatu eta Europako migrazio politikak salatu dituzte. "Europar kriminalizatu egiten dute errefuxiatu eta migratzaileengana-ko elkartasuna. Horregatik hartzen dugu elkarrekin bizitzeko konpromisoa, gorroto eta bazterkeriazko politikak errefusatzekoa eta gizatasuna eta elkartasuna defendatzekoa", adierazi dute antolatzaileek.

 EKINKLIK



Gipuzkoako Ehiza Federazioak deituta, 15.000 bat herritar bildu dira ehizaren aldeko manifestazioan. Kontramantestazioa egin du Askekintza talde antiespezistak.



HARRO SENTITZEN GARA EHIZTARIAK GARELAKO, ETA EHIZA GURE BIZITZEKO MODUA DA; DENON ESKURA DAGOEN EHIZAREN ALDE EGITEN DUGU; EHIZAK LANDA EREMUAK ZAINDU, ABERASTASUNA SORTU ETA EKONOMIA SUSPERTZEN LAGUNTZEN DU; ASKATASUNEZ ETA BAKEAN EGIN NAHI DUGU EHIZA; EKOLOGISTEN ETA ANIMALIAZALE BORTITZEN ERAGINPEAN EZ DAGOEN ADMINISTRAZIO LIBREAREN ALDE...

Gerardo Cantera, *Goienan*



EHIZTARIEK ERRESPECTUA ESKATU DUTE. ERRESPECTATZEN NAUENA ERRESPECTATZEN DUT NIK, INGURUMENA ERRESPECTATZEN DUENA ETA ANIMALIAK ERRESPECTATZEN DITUENA, PLAZERAGATIK HIL ORDEZ

@Andretxe



AURTEN ERE, EHIZTARIEK EUREN HILTZEKO ZALETASUNA ESKUBIDE BEZALA ALDARRIKATU DUTE DONOSTIAKO KALEETATIK. HONEK GURE ALDETIK ERANTZUNA IZAN DU. ZALETASUN BAT EZ DAGOELAKO ANIMALIEN BIZITZEKO ETA EZ SUFRITZEKO INTERESEN GAINETIK. EHIZA HILKETA DA!

@Askekintza



Guaidóren altxamendu militarra

ARGIA

Sare sozialetan zabalduzako bideo baten bitartez, herritarrak eta indar armatuak Nicolás Maduroren aurka altxatzera deitu zituen Juan Guaidók, apirilaren 30ean. Venezuelako militarrek etxe barruko arrestatzea zeukan Leopoldo López askatu eta armadak Caracasen duen La Carlota egoitzara eraman zuten. López eta hainbat militar ondoan zituela grabatu zuen bideoa Guaidók: “Usurpazioaren etetea gaur hasten da. Soldadu eta familia militar guztiari dei egiten diet, balentria honetan lagundu gaitzaten. Orain da momentua”. Indar armatuen babesa zuela adierazi zien herritarrei: “Venezuelako herria, beharrezkoa da denok batera kalera ateratzea, indar demokratikoak babestu eta gure askatasuna berreskuratzera. Antolatuta eta batuta, mobilizatu base militar nagusietan”.

Donald Trumpen Gobernuak modu irekian babestu zuen estatu kolpea: “AEBetako Gobernuak erabat babesten du Venezuelako herriaren borroka bere askatasunaren eta demokraziaren alde. Demokrazia ezin da garaitu”.

Maduroren Gobernuak berriz, Miraflores Jauregian kontzentratzera deitu zituen herritarrak, estatu kolpea deitoratzeko. Venezuelako Botere Publikoek ere estatu kolpea gaitzetsi zuten eta behin neutralizatzea lortu zutelarik, militar ugari salatuta zuten engainatu egin zituztela estatu kolpearen aldekoek.

Estatu kolpe saioak aurrera ez zuela egiten ikusirik, Leopoldo López eta bere familia Txileko enbaxadan babestu ziren. Saioan parte hartutako beste 25 militarrek berdin egin zuten Brasilgo enbaxadan. Juan Guaidó buruzagi matxinatua, bestalde, gorde egin zen. Lópezek eta Guaidók egunean zehar dei ugari egin zituzten herritarrak matxinadara batzeko, baina ez zuten lortu jendetzarik biltzea. Madurok jakinarazi zuen, justiziari parte hartuko duela matxinadan parte hartutakoak zigortzeko.

Txioa



SANTI LEONÉ

Kataluniako preso politikoen kontrako epaiketean, irain klasisikoekin batera bertzelako laidoak aipatu dituzte poliziek, giazko urrian giro larderiatsua nagusi zela erakusteko: “*Votarem*” oihu egiten zigun jendeak. Nik dakidala, inork ez die poliziei gogorarazi bozkatzeko asmoa adieraztea ez dela iraina. “*Votarem*” irain gisa sailkatu izanak ez du, berriz diot, nik dakidala, komentario handirik ekarri hedabideetan. Beharbada hori ez da hain arraroa, pentsatzen badugu, nik pentsatzen dudan bezala, oraindik martxan dagoen epaiketaren helburua independentismoa kriminalizatzea dela, berez gaitzesgarria dela independentista izatea eta “Espainia hausteko asmoz” bozkatu nahi izatea.

Egun hauetan, irratia edo telebista piztu eta “supremazista”, “arrazista” eta “fanatikoa” bertzerik ez da aditzen. Núria de Gispert politikari katalanak zerriak deitu die txio batean lau arerio politikori –Arrimadasi, Girautari, Montserratari eta Millori–. Hori xe da independentismoaren egiazko izaera, erran dute aho batez tertulietan. Hor ditugu egunero Herrera, Jiménez Losantos, Sostres edo Inda bezalakoan ahotik ateratzen diren loreak, baina mintzagaia Gisperten txioa da, ez omen baita pertsona baten txio desegokia, independentismo osoaren izaeraren adierazgarri baizik. Beharbada hori ez da hain arraroa..., tira, esaldia arestian idatzi dut, azken paragrafoaren akaberan.

Ez du hain sona handia izan, baina Hauteskunde Batzordeak isuna jarri dio Tv3-i presoan inguruko dokumental bat hauteskunde garaian emateagatik. Nonbait, independentismoari botoak ematen dizkio errealitatea erakustek –Batzordeak ez du zehazki horrela justifikatu bere erabakia, interpretazio librea egin dut–. Baina erabaki horrek, Gisperten txioak ez bezala, ez du ezeren –adibidez, demokrazia jakin baten– egiazko izaera erakusten. ●

GIPUZKOAKO EHIZTARIAK GREBAN...



ADUR

“UTZI DITZAGUN ALDE BATERA DISKRIMINAZIO ARRAZISTAK”

**FATIMA HACINE-BACHA GARCIA,
DONOSTIAN HILDAKO GAZTEAREN AMA**

Santi Coca Hacine-Bacha donostiarra jipoi baten ondorioz hil zen eta hilketari lotuta zabaltzen ari ziren gorroto mezu arrazista eta xenofoboaren aurrean, lasaitasuna eskatu du amak: “Oinarritu gaitezen maitasunean, mantendu ditzagun bakea eta lasaitasuna, utzi ditzagun alde batera amorrua, diskriminazio arrazistak eta gorrotoa”.

2019/04/29



Errekorra gastu militarrean



JUAN MARI ARREGI

Munduan gero eta gose eta migrazio gehiago dago, natura deuseztatzen ari gara eta klima aldaketari ez diogu jaramonik egiten. Eta bitartean, gastu militarra hazi egin da 2010. urteaz geroztik lehen aldiz. Stockholmeko Bakearen Ikerketarako Institutuaren arabera, 2018an %2,6 igo da gastu militarra eta 1,8 bilioi dolarrekoa izan da (1,63 bilioi euro). Fidatzeko moduko datuak ditugunetik -1988. urtetik- ez da halako kopuru handirik ezagutzen.

Errekor historiko hori AEBek eta Txinak bultzatu dute, hurrenez hurren 694.000 milioi eta 250.000 milioi dolar gastatu baitituzte armetan. Bien artean Defentsarako aurrekontu globalaren erdia baino gehiago batzen dute. Deigarria da Saudi Arabiaren kasua, 67.600 milioi dolarrekin hirugarren postuan jarraitzen baitu eta arma inportatzaile nagusia baita oraindik. Baina ez gaitu harritu behar, jakinik Yemengo interbentzio militarra gidatzen duela. Gogoan izan, bestalde, arma horien zati bat euskal enpresek produzitzen dutela eta Bilboko Portuaren bidez iristen dela arabiar lurraldera.

Frantziako Estatua bosgarren postuan dago 63.800 milioi dolarrekin eta Espainiako Estatua hamaseigarren, 2018an 18.200 milioi gastatu ondoren; azken honek NATOko kide gisa %7 igo zuen bere aurrekontu militarra iaz.

Beraz, ez da egia estaturen diru-kutxetan sosik ez dagoenik pentsioak, osasuna, hezkuntza, menpekotasuna edo migrazioentzako babes neurriak hobetzea. Leporaino armatzeko dirua daukate. Espainiako Gobernuak, bere burua sozialistatzat omen daukan horrek, politika sozialak egingo dituela dio... Ba gastu militar horren aurrean zer egin pentsatu beharko luke lehenik eta behin. Eta gainerako alderdiek, ezkerreko eta progresista direla diotenek, baita herritarrek ere, horixe exigitu beharko liokete. ●



ECUADOR ETXEA

Zer kontsumitzen dugu?

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

Hautsak harrotu ditu -sarekoak bederen- El Corte Inglés saltokiak "amaren heguna" delakoari begira egindako publizitate kanpainak. Iragarkian emakume bat ageri da, ondoko esaldia alboan: %97 besteei emana, %3 berekoa, %0 kekatia, %100 ama. Heteropatriarkatuaren arabera amatasunaren figura gorena litzatekeenari gorazarre ozen eta argia, bere buruari lehenetasunen zerrendan azken postua -kasurik onenean- eskaintzen dion emakume otzan, mendeko, gurari zein ametsik gabekoaren aldarri disimulurik gabea. Saltoki handien eremuko erraldoi espainiarrak, inoiz egin ez duen ezer baldin bada, bere eskuin muturreko izaera ezkutatzea baita. Adibideak ez zaizkigu falta.

Duela urtebetera arte, Dimas Gimeno zen enpresako lehendakaria, behin baino gehiagotan Falangeko hautagai izandakoa. Hori nahikoa argigarri ez balitz, enpresa aski seinalatua da langile eta sindikatuen kontra duen jarreragatik. Ahaztu barik zentsura erabiltzeko erreparorik ez duela, orain hamarkada bat pasatxo Soziedad Alkoholika musika taldearen diskoak erretiratu zituen kasu. El Corte Inglésen izaera eskuindar atzerakoia erakustera datozen adibideen zerrendaren lagin bat besterik ez lirateke aipatutakoak, azken publizitate kanpaina bezalaxe.

Hain adibide argigarriak izanik, harritu nau azken publizitate kanpainak eragindako asaldurak. Publizitate mota hau indarkeria den heinetik salatzea zilegi ez ezik, beharrezkoa ere badela dudarik ez dut. Ados. Baina iruditu zait mezu askok dezente dutela sinesgaiztasunetik, saltokiak halakorik egitea pentsaezina bailitzan. Jokatu nuke iragarkiaren mezuak ez duela ezjakintasuna jatorri, arestian aipatutako eskuin muturreko ideologia eta beronen iruditeria indartzeko asmo garbia baizik. Eta bidenabar publizitateak sortutako polemikaren bidez zabalkundea eta irabaziak lortuz gero, ezin hobeto.

Tamainako adierazpide matxista eta atzerakoiei ere atera ahal zaie onurarik ordea: sortutako harrabotsak aukera paregabea luzatzen du ditugun kontsumo ohituraren inguruan hausnartzeko. Zilegi da gure printzipio politikoeekin talka egiten duten printzipioak -eta ondorioz jarrerak- dituzten saltokietan erostea? Faxismoaren mamuak joko demokratikoan parte hartzen dutenen kopurua igo duen era berean, El Corte Inglésen izaera eskuin muturrekoa estalgabetzen duen iragarkiak ere balio dezake jendea kontsumo ohiturekin aldatzera bultzatzeko. Aldaketari begira, gauza gutxiarekin baitugu kontsumo ohiturekin baino eskumen gehiago. Beraz, ez dezagun arerioa finantzatu; ez behintzat beronen konplize bilakatu nahi ez badugu. ●

Organikoa herrian konpostatzea, debekatuta

ZERO ZABOR

HERNANI

Gipuzkoako Foru Aldundiak ukatu egin dio Hernaniko Udalari herrian atez ate bildutako hondakin organikoa tratatzeko konpost planta txiki bat eraikitzeko baimena. Proiektuak Madrilgo Gobernuaren diru-laguntza bat ere badauka izendatuta, baina Aldundiak ezetz dio eta ezezkoaren argudio bakartzat aipatzen da GHK ari dela lurralde osorako konpost planta bat eraikitzen Gipuzkoako Hondakinen Azpiegituren Lurralde Plan Sektorialean eta erabakita dagoela ezingo dela eraiki arau horietan aurreikusita dauden azpiegituz gain besterik.

USURBIL

Usurbilgo Udalak atez ate biltzen duen hondakin organikoaren parte bat –100 tona urtean– herriko bi baserritarrekin elkarlanean konpostatzen hasteko proiektua zeukan abian, honek ere Espainiako Gobernuaren diru-laguntza lortuta. GHK kontsorzioak debekatu egin dio horrelakorik egitea, bildutako hondakin guztiak bere eskumenekoak direla eta.

DONOSTIA

Donostia Bizirik plataformak eta Errausketaren Aurkako Mugimenduak salatu dute Donostia dela Gipuzkoan gutxien birziklatzen duen udalerria eta mobilizazioa deitu dute maiatzaren 17rako.



@PARQUEMEMORIA

JUSTIZIA ETA AITORTZA FUSILATUENTZAT

SARTAGUDA. Memoriaren Egunean, urteroko hitzordua izan zuten maiatzaren 4an Sartagudako Parkean. Ahantzuran eror ez daitezzen, omenaldia egin zieten Franskismoan fusilatutakoei, eta guztientzat justizia eta aitortza aldarrikatu zituzten. Aurten, Alargunen Herria Elkarteko kideek bereziki bi lagun izan dituzte gogoan: Jaxinto Gomez eta Carlos Martinez.



LURZAINDIA

135.000

135.000 euroko mailegua kitatu nahi du Lurzaindiak eta dirua lortzeko harpidetza kanpaina abiatu dute. Diru horrekin, 38 hektarea lur ordainduko dira, bertan arituko diren hiru laborari laguntzeko asmoz: Bastien Cecchetto eta Perrine Decarsin Donaixtin, eta Laura Daniel Ahurtin.



APUSTUAK. Joko eta apustuen publizitatea debekatzea onartu du EITBk. "Helburua da jokoak eta apustuek sor ditzaketen adikzio arazo larrietatik pertsona ahulenak babestea", azaldu du EITBko zuzendari nagusi Maite Iturbek. Salbuespenen artean da Espainiako Estatuaren eta ONCERen loteria.



ALDIZKARI BERRIA. *Urkila* aurkeztu dute, Bilboko aldizkari berria. "Errealitate politikoan eragiteko asmoz" sortu da, bi helburu nagusirekin: "Gertakari sozialen inguruan ukatua zaigun zapalduon ikuspuntua zabaltzea" batetik, "desjabetuon kultura erakitzen aletxo txikia jartzea" bestetik.



FAKIRRAREN AHOTSA. 111 Akademiako kideek Harkaitz Canoren *Fakirren Ahotsa* (Susa, 2018) eleberria hautatu dute aurtengo sariaren irabazle. Hiru fase izan ditu irabazlea hautatzeko bozketak, eta hiruretan atera da garaile. Azken fasean, Katixa Agirreren *Amek ez dute* (Elkar, 2018) izan du lehiakide.

"IDAI" ETA "KENNETH" ZIKLOIAK KLIMA ZORATUAK HONDORATU DU ZOR USTELEK ITOTAKO MOZAMBIKE

Klimaren aldaketa dagoeneko hemen da eta herrialde txiroenak kolpatzen ditu gogorren. Afrika ekialdean batere ohikoak ez diren bi zikloi oso bortitz lurreratu dira Mozambique gainean, txikizio handiak eraginez mendeetako kolonialismoak, hamasei urteko gerra zibilak eta azkenaldian agintari ustelek herrialdearen bizkar sinatutako zor publiko izugarriak kinka larrian jarrita zeukaten herrialdean. Klimaren erotzeak baditu eragile irabazleak eta pairatzen duten galtzaileak.

PELLO ZUBIRIA KAMINO

Nazio Batuen Erakundeak esan du: *Kenneth* zikloiak, Mozambique inoiz kolpatu duen ekaitzik bortitzenak, utzitako orbainak sendatzeko herrialdeak nazioartean laguntza beharko du. Martxoan Mozambiqueko erdi aldea suntsitu zuen *Idai* zikloia izan baldin bazen Afrikako eskualde honetan sekula ezagututako bortitzea, bost aste geroago *Kenneth* urakanak hautsi du marka.

Cabo Delgado sartuta, orduko 225 kilometrorainoko haizeteak zabaldu zituen estreina, eurite eta uholde handiak ondoren. Ipar aberatsean oso oihartzun ahula izan duten albisteek diote Macomia eskualdean etxebizitza eta erai-kinen %80 eraitsi dituela ekaitzak eta bizileku barik laga 100.000 jende. Hilak dozena batzuetan geratzeko itxaropena zuten agintariek, Pemba hiriaren inguru ez delako oso jendetsua.

Eric Holthaus meteorologo ezagunak azaldu du egun luzez irauteko heldu zela *Kenneth*, atmosferaren goiko aldean zeukan egoera bereziagatik ahultzen joateko aukera gutxi zuelako: "Inoiz ez da horrelakorik gertatu eskualde honetan eta munduan ere oso aldi bakanetan jazo da, zikloi batek indarrean irautea hainbeste egunez".

Munduko Meteorologia Erakundearen arabera *Idai* izan daiteke Hego Hemisferioak sekula ezagutu duen zikloi tropikalik gaiztoena. Adituek 4. mailako zikloi izendatu zuten martxoko *Idai*, azpimarratuz Afrikako itsas hegi horretan

bitxia dela horrelako ekaitz handi bat eta harrigarria zela bost asteko epean bigarrena iristea.

Idai-ren eraginez, Beira hiriaren 500.000 biztanle dituenen %90an suntsituta zuten uholdeek eta 600 jende hil. Gogorren kaltetutako eremuetara iritsitako lehen sorosleek aurkitu zituzten jendeak zuhaitz eta teilatu gainetan igota, norik erreskatatuko zain, artean urak gero eta gorago igotzen zirela. Zimbabwetik zabalduko hedabide sozialek erakusten zuten jendea itota uholdeak harrapatutako karraketan eta Mozambiketik airetik hartutako irudietan agertzen ziren kontak ezin ahala etxe urpean. Eskualde osoan, munduko txiroenetakoa den horretan, hiru milioi pertsona inguru kolpatu zituen *Idai*-k.

Holthausek martxoan ARGIAK interneten plazaratutako "*Idai* zikloiak agerian utzi du klima aldaketaren oinarrian datzan injustizia" artikuluan ohartarazi zuen *Idai* zela frogatzen garbi bat klimaren aldaketak munduko hainbat eskualdetan dagoeneko eragiten dituen hondamendia: "*Idai* zikloia ez da hondamendi naturala: ekaitza gaiztoagotu dute klimaren aldaketak, mendetako kolonialismoak eta nazioarteko etengabeko injustiziek". *Kenneth* ekaitzak arrazoi eman dio, ageri denez.

Mozambiqueko uholdeak gutxienez hiru alorretan daude lotuta klimaren aldaketari. Batetik, atmosfera beroago batek ur lurrin gehiagori eusten dio eta honek eragiten du euriteak borti-

tzagoak izatea. Bigarrenik, eskualdeak azken urteotan lehorte gogorra nozitu du, klimaren prospekzioek eremu horretarako aurreikusten duten lehortearen ildoa, lurzorua gogortuz eta ura ez txukatzea eraginez. Hirugarrenik, itsasoaren maila jada oin bete gorago dago duela mende bat baino, eta honek lehorrean barrurago iritsi arazten du kostaldeko uholdea.

Gauzak gehiago okertzeko, urtetako idorteen ondorioz elikagai hornidura oso murriztu da eta bereziki kaltetzen ditu haurrak; ondorioz, haurren lana eta derrigortutako ezkontzak eten barik ugaltu dira urteotan. Ehunka mila hektarea soro eta nekazaritzako lur urperatuta, eskualdea berriro azkar martxan jartzeko esperantza gutxi dago.

"Herrialde aberatsetan bizi gareno dio Holthausek- zail egiten zaigu horrelako desastre bat irudikatzea, zeren eta gure gizartea eraikita baitago, hein batean, muturreko eguralditik gu babesteko. Hau da krisi humanitario berri bat erakusten duena klimaren aldaketaren oinarrian datzan injustizia".

ATUNETARAKO BAPOREEN IRUZUR HURA

Ezbeharrak pobrea inoiz ez badute harrapatzen une egokian, klimagatiko hondamendiok Mozambikeri kolapso ekonomikoan lur jota zegoela heldu zaizkio. Afrika osoak bezala mende luetako kolonialismoa jasan ostean, portugesez ingandik libratu zenean Mo-

**PEMBA HIRIAN**

HERRITARRAK EURIPEAN ETSITA
"KENNETH" ZIKLOIAK EKARRI DIEN
UHOLDEAK HARRAPATUTA.

zambike gerra zibil odoltsuan murgildu zen 1976 eta 1992 artean, Afrikan komunismoari hesia jartzeko aitzakian AEBek hauspotutako gerran. Ondorioz, suntsiketa ekonomiko handiez gain, milioi bat hildako eta lau milioi herrialde barruan lekualdatuta, gehienak hirietako aldirietan eta uholdeen mende dauden eremuetan pilatuta.

Geroztik, kanpo zorrak metatzen joan da Mozambique, neoliberalismoaren esku-makilak diren NDF Nazioarteko Diru Funtsaren eta Munduko Bankuaren ustezko garapen proiektuetan leporaino zorpetuta, Afrikako zordunetan txapeldun.

Joan den udazkenean ATTAC erakunde altermundialistak kontatu zuen Mozambiqueko agintariak eta Europa eta AEBetako konpainia errespetagarriak ziprztinduta dauden eskandalu bat, hain zuzen ere herrialdea kiebra egoe-

rara eraman duena eta zorpetze publikoak mundu osoan nola funtzionatzen duen erakusten duena.

2013ko irailean gaude. Cherbourg, Frantziako Normandian. François Hollande presidentea bera helduko da hemengo ontziolaria hiru ministroekin, Frantziak eskuratu duen kontratu oso on bat ospatzera: atunetarako 24 bapore eta armadarentzako 6 patruila-ontzi militar. Mozambiqueko arrantza biziberrituko omen dute eta kostalde arriskuetsu hura zainduko piratetatik.

Bost urte geroago, txalupa guztiak egin eta entregatuta zeuden baina portuetatik irten ezinik, Mozambique bere zor publikoaren ordainketak etenda, herrialdeko inbertsioak berdin, gastu sozial guztiak murriztuta. Izan ere, 200 milioi euroko inbertsioa izatekoa zena azkenean 2.000 milioiko zorra bihurtua

zen, bost urteko epe laburrean, tartean 622 milioi gehiago kostaldearen zainketa hobetzeko, 538 milioi portuak bapore modernoei egokitzeko, 800 milioi lehenbiziko inbertsioak bermatzeko...

Tartean, Mozambique hondoratu duten operazioari etekina ateratzen aritu dira Estatuko aparatuen buruak, ministro eta zerbitzu sekretuetako goi karguak zerbitzu publikoen kontrata pribatuen buruzagitzan ere badaudenak; ate birakariak Afrikan ere. Alemania, Suitza, Frantzia, Britainia Handia eta Errusiako bankuek beren sosak ondo lotu dituzte eta Mozambiquek sinatu behar izan du denetara 2.000 milioi euro ordaintzera derrigortuko duen finantzazio plana, kalean herritarrek eta hainbat herri mugimenduk zor ustelari uko egitea eskatzen zuten arren. *Idai* eta *Kenneth*-ek eman die azken errematea. ●

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f t



MARRAZKETA TRESNA EZIN HOBEA DA EDOZEIN OGIBIDETAN ARITZEKO, BAINA EZ DA TREBEZIA MODUAN LANTZEN



Hernanin hartu gaitu Ainara Azpiazu Aduriz ilustratzaileak, Andrekaleko bigarren zenbakian. Etxe horretan hazi zen Axpi, eta hantxe dauka orain lokala.

Historia polita dakar kale horrek: ofizialki, Kardaberaz deitzen zen, baina, orain dela bost urte, herritarren ekimenez, tradizioz eman izan zaion izena berreskuratu zuen. Toki egokia da, dudarik gabe, gaurko elkarrizketa egiteko. Izan ere, horixe baita Axpiren lanaren ardatzetako bat: iruditeriatik at geratu direnak (emakumeak, adinekoak, haurrak) koloretara ekartzea.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES

 DANI BLANCO

Badira hamar urte afizioa ofizio bihurtu zenuela, nola gertatu zen?

Txikitatik asko gustatzen zitzaidan marraztea, beste ume askori bezala, eta ez nion sekula utzi. Amak Donostiako denda dotore batean egiten zuen lan, Nerecáñen, eta han bulego eta arte material ugari saltzen zen. Opariak handik ekartzen zizkidan, bera ere oso artezalea zen eta tarteka dendatik mimos ekarritako opariek garatu nuen zaletasuna haurtzaroan. Iritsi zen zer egin eta nora joan erabakitze garaia, eta etxean ez zuten oso begi onez hartu arte ederren aukera, eta erabaki nuen soziologia egitea. Nahiko nota txukunekin bukatu nuen, soziologo lana atera zitzaidan eta ikerketa batzuk egin nituen. Orduan konturatu nintzen soziologiak ematen zidan begirada eta errealitatea aztertze giltza hori oso go-

goko nuela, baina ez zela izan nahi nuen ogibidea, edo, gutxienez, ez nuela geratu nahi zintzilik utzitako arte ederren bide horri pixka bat heldu gabe, oraindik gaztea nintzen-eta. Zortzi ordu zerbaitetan pasa behar dugu, izan dadila gustukoa. Soziologiak begirada ematen zidan, eta arte ederrek hori plazaratzeko modua.

Arte ederretan ere ez zinen ase, ordea.

Lehen urteak oso dispertsoak ziren, handik eta hemendik probatzen zen, eta nik, ordurako, gauzak nahiko garbi neuzkan, ez nuen denbora gehiago "galdu" nahi. Ahalegin handia eskatzen zidan aldi berean lana eta ikasketak egiteak. Teknikan gehiago sakontzea zen nik behar nuena, nahi nuena egiten segitzeko: munduarekin komunikatzeko. Baina arte ederretan ez nuen ikusten aukera handirik horre-

tarako. Are gehiago, esango nuke oso gutxietsia zegoela modu hori. Komikia, ilustrazioa, gauza figuratiboak egitea... ez zen hori bultzatzen zena. Ilustrazioan topatu nuen nire bidea, ikastaroak eginda lehen-dabizi eta masterrean ondoren, Italian.

Komunikatu nahi zenuela diozu: zer ordea?

Adibidez, emakumeen irudiak ez nituen ikusten gizartean garrantzitsuak ziren tokietan, irudiak egon ohi diren tokietan: prentsako tiretan, aldizkarietan... Ematen zuen munduaz hitz egitea zela gizonen munduaz hitz egitea. Hala zen. Bazirudien mundua hura zela, baina hori zen munduaren frakzio txiki bat. Faltan botatzen nituen, ez bakarrik emakumeak, adinekoak, jendea, umeak eta bestelakoak ere bai.



Askotariko lanak egiten dituzu. Has gaitezen liburu ilustratuekin. Nolakoa da esparru hori?

Euskal Herrian oso gutxi produzitzen dira, ez baita produzitzeko merkea. Itzulpenak bai, asko egiten dira, ederrak gainera. Bertako produkzioa hasitapenetan dagoela esango nuke, badaude argialetxe batzuk apustu handiagoa egiten dutenak, zorionez, eta uste dut goraka doala. Bestalde, beste herrialde batzuekin konparatuz, Euskal Herrian ez daukagu irudiaren kulturarik, batere ez. Irudia umeen munduarekin lotzen da oraindik ere, eta umeen mundua lotuta

dago gutxiago balio izatearekin. Umeen munduari lotuta egotea ez da berez txarra, zoragarria da, niri asko ematen dit: umetako askatasuna, ideien zabaltasuna... zoragarriak dira. Ematen du ume eta heldu ezberdin garelara, baina azken batean pertsona berdina da, garapen baten ondoren. Ez dakit zergatik gutxien ditugun gauza horiek. Bide bat daukagu egiteko horretan ere.

Zein da zuretzat halako liburuaren xarma?

Uste dut jendearengana iristeko ahalmen handia dutela, zeren irudi zora-

garriak izaten dituzte eta testuaren eta irudiaren arteko jolasa ere oso polita izaten da. Nolabaiteko sentsazio ona uzten dute, askotan oso sakonak eta zuzenak dira. Liburuaren bidez eduki bat jasotzeko beste modu bat da, eta beste esperientzia mota bat eskaintzen du, oso polita iruditzen zaidana. Sortzaile bezala goxoki bat da.

Testuaren eta irudiaren arteko jolasa aipatu duzu. Nolakoa behar du?

Sortzaileak erabakitzen du nolakoa izan daitekeen. Garbi dagoena da ez duela errepikakorra izan behar, irudiak ez duela errepikatu behar testuak esaten duena, ezta irudiak adierazi testuak esaten duena. Hortik aurrera hainbat harreman sor daitezke. Batetik, kontraesana sor daiteke bien artean, eta horren bidez interesa piztu. Edo, bestela, irudiaren bidez historia zabaldu daiteke, bigarren mailako istorioak sortuz, adibidez. Niri interesgarriak zaizkit testu eta irudien artean jolasa sortzen dutenak, irakurlearekin konplizitatea sortzen dutenak.

Entzuna dizut baduzula gogoia biak zuzen egiteko, testua eta irudia.

Orain hasi naiz. Biak iruditzen zaizkit garrantzitsuak. Askok gustatzen zait beste baten buruan sortutakoak ilustratzea, konturatu naizelako niri okurrituko ez litzaizkidakkeen gauzak sortzen direla, eta hori oso aberasgarria da. Nire testuak egitea eta beste batekin lan egitea, biak eskatzen dizkit gorputzak.

Nola funtzionatzen du elkarlan horrek?

Pertsonaren araberakoa da, oso. Nire ustez *Arraroa*-k ondo funtzionatu zuen idazten eta marrazten hasi aurretik gertatu zelako elkarriketa.

Paulak [Estévez] eta biek erabaki zenuten historia zein izango zen, lanean hasi aurretik.

Album batek, azken finean, zerbaiti buruz hitz egiten du bi hizkuntzatan, zerbait osoa gogoa sortuz. Orduan guk biok adostu genuen gaia, nola enfokatuko genuen eta nondik arituko ginen. Gero bategingongo du testua eta besteak irudia, baina aurretik erabakita dago oinarria. Iruditzen zait, gainera, modu horretan askoz aseago geratzen direla bai ilustratzailea bai idazlea.

Normalean hala izaten da prozesua?

Normalean, lehenengoa testua izaten da. Testua iristen zaizu eta hor bilatu behar



duzu nola osatu liburua irudien bidez. Zu atzetik zatoz, nolabait esatearren. Horrek, batzuetan, ilustratzailearen lanari ez dizkio gauzak oso erraz jartzen. Testua nolakoa den, zenbat arnas uzten duen... Modu horretan idazlea izaten da gaia erabakitzen duena, eta tarteka gaia erabaki ahal izateko gogoia sentitzen hasi nintzen, horregatik hasi nintzen nire testuak idazten.

Muralak ere egiten dituzu. Hemen ondoan badago handi bat, Hernaniko frontoiaren atzean. Maitea duzu, ezta?

Bai. Ni hemengoa naiz, Andrekalekoa, eta anaia eta biok txikitan asko joaten ginen hara, aspertzen ginenean, esku-pilotan aritzera. Etxe hau familiako etxea izan da eta senide asko bizi izan dira hemen, eta *Tilosetan* [Ezkiaga pasealekua] ere asko ibilitakoa naiz gartzaroan. Karga simbolikoa dauka Hernani delako, *Tilosak* hor direlako, oraindik imajinatu ditzakedalako nire aiton-amonak eta lagunak paseatzen, emakume pilotari bat agertzen delako horman... Niretzat gauza horiek denak oso garrantzitsuak dira.

Zeuk egin zenuen dena, garabi handi batera igota.

Abentura totala izan zen, odisea txiki handi bat. Prozesua bera oso polita izan zen, jende asko pasatzen zen, aspaldi hitz egin gabeko jende askorekin hitz egin nuen, eta orokorrean asko gustatu zitzaion murala.

Beka batekin egin zenuen, ezta?

Hori da, Hernaniko lehenengo kale arte beka izan zen. Deialdia oso irekia zen. Zuk proiektu bat aurkeztu behar zenuen, diziplina ez zegoen erabat zehaztua, bai ordea gehienez eska zenezakeen diru-kopurua. Pareta ilun-iluna zegoen, goroldio eta lizunez bete... Zoko tankera zuen tokiak, egia esan. Udalari eskatu nion pareta hori txukuntzeko, gainontzeko garabiak-eta proiektuaren kostuetan sartu nituen. Eta udalak onartu! Oso eskertua nago.

Zer gustatzen zaizu muraletatik?

Kalean daudela. Jendea pasa egiten da kaletik, eta ikusi egiten du. Liburu bat irekitzeko joan behar du liburu-dendara, erosi behar du liburua eta eduki behar du denbora liburua leitzeko. Museoa

berdin, sartu behar duzu begiratzera. Kalean, hor dago, muralaren gauza garrantzitsu bat iruditzen zait. Geroz eta errespetu handiagoa ematen dit, urteak pasa ahala konturatu naizelako, kalean inguruan dauden elementu guztiekin funtzionatu behar duela. Armoniak bilatu behar direla iruditzen zait, eduki behar zaiola errespetua murala dagoen tokiari. Iruditzen zait dagoen toki horrekin harremanetan egon behar duela. Ez da liburu bat; liburua ixten duzu eta hor bukatzen da, murala ez.

Komikiak, horra hor zure lanaren beste ardatz bat. Tupust! kolektiboko kide zara, eta orain dela gutxi atera duzue izen bereko komiki-bilduma.

Usaimena izeneko istorioa osatu duzu. Maiz erabiltzen dituzun gaiak atera dituzu



Nire etxean bizitza prozesuaren metafora eta irakaspen asko animalien edo landareen bidez ematen ziren

hor ere: natura, animaliak, arbasoekiko lotura, komunitatea, ahizpatasuna...

Naturarena etxetik datorkit. Nire aitona ehizatari zen, baita osabak, aita, anaia... Batzuek ehiza ikusiko dute begi txarrez, eta ulertzen dut. Nik ere urte luzeetan

kontraesan eta borroka handiak izan ditut, eta oraindik ere ez zait kontu erraza egiten, urte luzez ez nuen ehizatutakorik jan. Pentsa, begetarianoa ere izan nintzen. Erruduntasuna sortzen zidan. Hala ere, badu beste alde bat, natura oso barrutik eta oso ondo ulertzeko moduak dituena. Askok hausnartu, familiakoekin eztabaidatu eta sufritu dut gai horrekin, baina nigan arrasto ona ere utzi du. Nire etxean eduki da sen oso handia eguraldiari begiratu eta jakiteko zer giro egingo duen, kasik base-rritarrak bezala. Txikitan orduak pasatzen genituen errikoan arrantzan. Animalia asko ezagutu dut bertatik bertara: azkonarrak, basurdeak, basahuntzak, orkatzak, azeriak... Garai batean, gure harremanak ez ziren gizakietara mugatzen, gure harremanak ziren landareekin, animaliekin, eguraldiarekin... Gaur egun, munduaren ulerkera honetan, ematen du aparte gaudela, nolabaiteko haustura bizi izan da, baina guk etxean ez dugu inoiz haustura bizi izan. Nire etxean bizitza prozesuaren metafora eta irakaspen asko animalien edo landareen bidez ematen ziren. Gainera, adibideak bilatzen hasita, denetik dago, adibidez, bisigua hermafrodita da. Hori gustatzen zait, naturan ez dago eredu bakar bat, mila modu eta kolore baizik.

Ainara Azpiazu Aduriz, Axi

1980, HERNANI



Soziologia eta Arte Ederrak ikasi zituen Bilbon, eta ilustrazioko master bat egin zuen Italian. Ilustratzaile dabil azken hamar urteotan, hainbat lanetan: komiki-tirak, liburuak, tailerrak eta muralak egiten ditu. Autonomoa da, baina, gaur egun, Kabiene elkarlan gunean dabil, Usurbilen. 2017an Etxepare saria eskuratu zuen, Paula Estévezekin batera egindako *Arraroa* lanari esker. Tupust! kolektiboko kidea da, eta Txalapartak berriki kaleratu duen izen bereko komiki-liburuan parte hartu du. Haren lanetako batzuk ikusgai daude Donostiako Lugaritz kultur etxean, ekainaren 14ra bitarte.

Zu orain Igeldon bizi zara.

Naturarekin gertutasuna bilatu dut, behar dut. Ez badaukat, galduta bezala sentitzen naiz. Guk, nahiz eta kalekoak izan, oso presente genuen natura, bailara hau batez ere, hemendik Goizuetarakoa. Belaunaldietan, naturarekin harremanetan bizi izan direnek gordetzen duten hori da interesatzen zaidana, natura irakurtzeko gaitasuna. Guk lehenago bagenuen kultura handi bat, osasuna eta gure burua beste modu batera ulertzekoa, beste norabait begira ginen. Orain ematen du antropozentrismoan murgilduta gabiltzala, baina batzuetan hamsterrak bezala gabiltza, gurpilean, eta ez dakigu soluzioa bilatzen. Kultura horietara asko jotzen dut inspirazio bila. Inkisizioa, esaterako, oso gertaera garrantzitsua iruditzen zait gizartean aldaketa oso garrantzitsuak ekarri zituelako, basakeria handia izan zelako, eta nik aipatu ditudan sustraiak deabrutu zituztelako. Galera handia ekarri zuen horrek.

Marrazketa eta komiki eskolak ere ematen dituzu. Zer iritzi duzu arte hezkuntzaren egoeraz?

Gaiak beste elkarrizketa baterako eman lezake, baina laburrean, esango nuke



curriculumean ez dutela leku duinik ez arte plastikoek ez bisualek, eta alboratuta eta mespretxatuta daudela. Marrazketa adibidez, tresna ezin hobea da edozein ogibidetan aritzeko, baina ez da trebezia moduan lantzen. Horrek hutsune handiak sortzen ditu.

Askok uste dute marraztea dohain bat dela, lehen bertsolariekin gertatzen zen bezala, uste zen bertsolaria jaiotzen zela, berezkoa zuela dohaina. Marrazke-

tarekin antzeko irakurketa egiten dela iruditzen zait, ahalmen berezi bat duzu, edo ez duzu, eta kito. Eta ez da horrela, inondik inora. Teknikak daude, trikimailuak, pauso konkretuak, behin ezagutuz gero edozeinek marrazten ikastea ahalbidetzen dutenak. Edozeinek. Uste dena baino askoz denbora gutxiagoan oinarriak oso ondo barnera daitezke. Beharrezkoa ikusten dut hezkuntza programak hori kontuan hartzea. ●

ANTOLATZAILEAK

BABESLEAK

CAF elhuyar

neiker

CAF ELHUYAR SARIAK

25 URTE

IGO

TRENERA!

Maiatzaren 15ean emango dira CAF-ELHUYAR sariak

Ekitaldia Beasaingo CAFen izango da, 18:00etan GONBIDATUTA ZAUDE!



Iritziak

Otsoen kontra



ESTITXU GARAI ARTETXE
EHU-KO IRAKASLEA

Hauteskundeen ajea kendu gabe gaude eta berriro kanpainan bete-betean. Joan dira Espainiako Estatuaren hauteskunde orokorrak. PSOEk aise irabazi ditu, garbi erakutsita Pedro Sánchezek asmatu zuela hauteskundeak aurreratzen. Ondo irakurri zuen Andaluziako hiruko gobernu-akordio eskuindarrak ezartzen zuen marra eta aliantza hori estatu osoa hedatzeko arriskuak ezartzen zuen polarizazioa.

Kanpainan guztiek jarraitu dute joko hori, Voxek jotako doinuan dantzan, Alderdi Popularrarentzat (PP) biziki kaltegarria izan dena. Aurretik datorrigun hilabetean Espainiako eskuinean komunikazio politikoko analista eta estrategia-zale guztiek hurbiletik jarraitzeko mugimenduak egongo dira. Voxek lehengo lepotik aterako du burua; Ciudadanosek ere diskurtso atzerakoi, eskuindar eta zentralizatzailean sakontzen jarraituko du *sorpassoa* lortu eta eskuinaren lidergoa irabazteko; eta PP, berriz, jasotako kolpearen ostean birkokatu eta sasoi bateko moderazio faltsua berreskuratu nahian arituko da. Lartxo hilabete bakarrean lortzeko.

Markoa erabat estatala izanagatik ere, Hego Euskal Herrian eta Katalunian independentistek eta abertzaleek oso emaitza onak izan dituzte. Hauteskunde orokorrak beti izan dira plaza zaila, etxetik kanpo jokatzeari, eta horrek meritua bikoizten du. Espainiako politika erabat espektakularizatuta dagoen honetan,

Hego Euskal Herrian eta Katalunian independentistek eta abertzaleek oso emaitza onak izan dituzte. Espainiako politika erabat espektakularizatuta dagoen honetan, zaila zen begirada Madrilgo kalapitatik altxatzea

zaila zen begirada Madrilgo kalapitatik altxatzea. Esquinaren eta faxismoaren aurrean, bertako alderdiak tresna eraginkor gisa ikustea oso kontuan hartzekoa da. Jeltzaleak EAeko lehenengo indarra dira atzera ere eta lortutako 6 eserlekuak kiniela guztietan agertzen dira Sánchezek babesa lortzeko dituen aukeren artean. Zenbakiei erreparatuta, ordea, ERC-EH Bildu aliantzak lortutako 19 eserlekuak dira PSOE eta Podemosen batuketari gehiengo osoa emango liokeenak bakarrik. PSOEren ingurumariak adierazi du jada bakarrik gobernatzeko nahia. Horregatik alderdi independentistek inbestidura aurretik jokatu behar dute partida behinena eta Sánchezen gobernu ahalbidetzeko gutxiengoak orain ezarri behar dira. Behin inbestidura lortuta, bidea nabarmen errazten

zaio Sánchezi bateko zein besteko babesak bilatzeko.

Hauteskunde hauen eragina, alabaina, ezin da mugatu Espainiako Gobernu osaketari nola eragingo dioten aztertzerara. Udal eta foru hauteskundeak hilabete eskas barru izango dira, eta oraindik erabakigarriago dena: Nafarroako parlamentuko hauteskundeetan atarian gaude. Jakina da bozka emateko irizpideak aldatzen direla, baina hautes-zita bien artean hain tarte laburra egoteak Espainiako alderdiei egiten zien mesede a priori, zalantzarik gabe.

Zeharo hauteskunde ezberdinak izan arren, jada eskuartearen ditugun Estatuko emaitzek joerak aztertzeko balio dute, bederen. Navarra Suma koalizio espainolista indar bozkatuena izan arren, bozka asko galdu ditu eta EH Bildu eta Geroa Bai, ordea, goranzko joeran ageri dira eta gaitasuna erakutsi dute Podemosen boto galerari atarramendua ateratzeko. Nafarroako alderdiaren lauko gobernari begira, kezkagarria zen oso Podemosen egoera. Horregatik baikorra da duela lau urte politikoki aktibatuta ziren bozka horiek PSOE ez den beste aukeretara bideratzea. Badirudi hor EH Bilduk izango duela erronka handiena Hego Euskal Herri osoan. Edonola ere, analisi guztiek oso emaitza estuak aurreikusten dituzte Nafarroan eta bateko zein besteko boto aktibazioa izango da giltza. Ez aspertzeko moduko asteak datozkigu. Hurbiletik jarraitu, gozatu eta sufrituko ditugu. ●

Ruanda: genozidioaren 25. urteurrena dela eta



**KATIXA
DOLHARE-ZALDUNBIDE**
IDAZLEA

Duela 25 urte, 1994ko apiriletik uztaileira iragan zen Ruandako Tutsien genozidioa: hiru hilabetez, milioi bat presuna, Tutsi edo Hutu moderatu, erail zituzten Hutu erradikalek. Geroztik, bizirik atera zirenek etengabe lan egin dute egia osoa bilatzeko, garai hartako goi-mailako frantses politikari, bankari eta militarren parte-hartze aktiboa salatuz. Miaketa horietan diharduen Adélaïde Mukantabana anderea behin eta berriz etorri zaigu Euskal Herrira, herri eta ikastetxe zenbaitetan bere lekukotasun hunkigarria plazaratzeko. Azken aldian, Zuberoako *Hau* aldizkariak du gonbidatu Maulera, apirilaren 29an.

Beste ruandar anitzek bezala, Adélaïde Mukantabanak gutun irekia idatzi zion Emmanuel Macroni lehendakari bihurtu zelarik, 2017an. Horretan koherentzia eskasa leporatu zion II. Mundu Gerrako sarraskiak gaitzetsi zituelako, eta ez 1994an François Mitterrand, Edouard Balladur, Alain Juppé, Nicolas Sarkozy edo Hubert Védrine agintariek Ruandan eragin zituztenak. Gutun horretan, Adélaïde Mukantabanak azpimarratu zuen Emmanuel Macron gaztetxo zela orduan, eta bihotzez galdegin zion Ruandari buruzko gaietan esku odoltsudunen ildo politikoa-ekin hausteko, hots artxibo guztiak historialari eta justiziari zabaltzeko, eta Frantziaren izenean ofizialki barkamen galdegiteko –Belgikak, Amerikako Estatu Batuek, Vatikanok eta Nazio Batuen Erakundeak egin bezala–.

Urrats historiko hori egin beharrean, Emmanuel Macronek Ruandako *Turquoise* operazio militarren parte hartu zuen Lecointre jenerala Aitzindaritz Goreneko buruzagi izendatu du, eta modu arinegian hartu du genozidioaren 25. urteurren sinbolikoa: ez omen du astirik izan apirilean iragan

den Kigaliko oroitzarrera joateko, eta frantses enbaxadorerik ez dagoenez Ruandan azken lau urteetan, La République en Marche alderdi politikoko 29 urteko diputatu gazte bat, ruandar frantsestua, igorri du Frantziaren ordezkatzera –Alain Juppék publikoki erran duenez, Ruanda herri arbuia-garriak ez zuen merezi-eta Frantziak ministrorik bidal ziezaion–.

Baina zer interes ote zuten, zer interes dute oraindik frantses agintariek beren herria hein horretaraino zikintzeko Ruandako genozidio horretan? Batez ere frankofoniaren zaintza. Ezen, Ruanda, belgikar kolonia frankofono ohia da, herri anglofono inguratua. Porrota ikaragarria izan da haatik istorio hori Frantziarendako: 2008tik goiti buruzagiek hizkuntza frantsesa kanporatu dute eskola egitarauetarik eta administratibotik, ingelesa sarraraziz haren partez. Egun, herritarren %6 baizik ez omen da frantsesez mintzatzeko gai.

Louise Mushikiwabo Atzerriko Arazoetako ministro ohiak zioen 2011n, probokazioz: “Ingelesarekin, urrun ikus dezakegu; frantsesarekin, ez gara inora joanen”. Horrelako deklarazioak zaizkigu heltzen guri, eta menturaz beste gisako gatazka bat ezkututzen digute, hori da tokiko hizkuntza den kinyaruandari lotutakoa. Ezen, Adélaïde Mukantabanak azaldu bezala, eta literatura alemaniarrean gertatu zenaren antzera, lekuko kontalari, idazle eta artistek berrasmatzekoa dute genozidioko eragile eta hiltzaileek likistu hizkuntza: herraren sustatzeko erabili mintzaira ez zen frantsesa izan bertako hedabideetan, baizik eta kolonialismo aitzineko kultura eta memoria zekarren kinyaruanda. Erronka izugarria idazle gazteentzat, interes handirekin segi dezakeguna hizkuntz berreskuratzeko prozesuei begiratzen diegunok. ●



PAULA ESTÉVEZ

Plastikoa



NORA BARROSO
EHU-KO IRAKASLEA

Sortzen dugun zaborra gure gorputzen eta ekintzen luzapena da. Behin begi-bistatik kenduta, gurekin zerikusirik ez duen zerbait bezala ikusi nahi dugu baina ez, ezin dugu pegatutako txiklela hain erraz gainetik kendu.

Alarma ugari daude piztuta. Batzuk ezin ditugu ekidin, hainbat ez ditugu ikusten, zenbait ez ditugu ikusi ere egin nahi. Halere, egunerokotasunaren testuinguru bizi horretan sentitzen/esaten/egiten ditugun horien presentziak markatzen du oraina eta etorkizuna zertzelatu dezakegu.

Hiruzpalau egunetan plastikoz betetako zakar poltsa botatzea eredu baten kirats usainaren adierazgarri dela deritzot. Zer ari gara egiten madalena zorroaren barruan madalena solteak plastikozko poltsatan sartzen/erosten/kontsumitzen? Zeinen eta zeren bizkarrrera ari gara hori guztia eraikitzen? Nahikoa al da birziklatzearekin?

Galderek zabaltzen dute bidea eta, erantzun zehatza bilatu baino, etxekook presentziak bizitzea erabaki genuen: plastikoa garrantzirik gabeko euskarri elementua izatetik kontuan hartzen genuen objektua izatera pasatzea. Eta beraz, gure hautua plastikoa zuen gauza berririk ez erostea izan zen. Lehen hurbilpen gisa zazpi egunez plastikoa

zuten produkturik ez erosteko erronka jarri genion gure buruari. Erosketara etxeko oihalezko poltsekin ateratzen ginen, bertan fruta eta barazkiak sartzeko; isuriak izan zitezkeen jakietarako, tuper zaharrak; beirazko ontziak, aldiz, lekaleen ale solteak, granelean erositako txokolate hautsa eta zerealak jasotzeko; jogurten potoak ekidin genituen... Tarteka zailtasunak eta azalpen ugari eman behar izan genituen. Asko ibiltzen ginen herrian oinez alde batetik bestera gure erabakia kontuan hartzen zuten elementuen bila; beraz, askotarikoak ziren erosketak egiteko lekuak. Egunerokoaren erritmoa lasaitzeko ere balio izan digu, eta kartoiaren erabilpena ia erdira murriztu zen etxean.

Egunerokotasunera bueltatzean, lan-ketarekin sortutako erreferentzia garrantzitsuenak mantendu ditugu eta, zero plastikoa eronka mantentzea ezinezkoa dela jakin arren, elementu horrekin dugun erlazioa desberdina da orain, eta izugarri murriztu dugu haren erabilpena. Birziklatzea garrantzitsua da baina zabor gutxiago sortuko bagenu arazoaren erroa joko genukeela iruditzen zaigu etxekooi. Gure bizipena zuekin konpartitu nahi genuen, eta plastikoa eronka duzuen erlazioarekin zuen eronka bizitzera animatu ere bai. ●

Biji Kurdistan



ITZIAR BARDAJI
GOIKOETXEA
IRAKASLEA

Biolentzia betikotzen denean ikuslela immunizatzen da, txerto bat jartzea modukoa da. Ural mendietatik haragoko errealitateei europar instituzioek eta hiritarrek ez ikusiarena egiten diete, eraginkortasun txundigarriaz. Ehunka ekintzaile kurdu, zaila zenbat esatea, gose greban daude. Muturreraino eramandako gose grebak dira, eta hiltzen ari dira. Beste batzuek beren gorputzei su emanda egiten duten aldarria: azken 20 urteak kartzelan daramatzan Abdullah Öcalan PKKren buruaren erabateko isolamendua amaitzea.

Europak alde batera begiratzen du Turkiak kurduak erailtzen dituen ba-

koitzean, Afrin militarki okupatzen duenean edo parlamentuan kurduera hitzegiteagatik hogeitortetako kartzela zigorrak ezartzen dituenean. Europak PKK zerrenda terroristetan mantentzen du eta ez du Turkia Europar Bata-sunean (EB) sartzeko prozesua eteten. Asiarako pasabide estrategiko garrantzizkoegia da. Ordainetan, Turkiak EBri migratzaileak blokeatzeko lan zikinak egiten dizkio, adibidez.

Baina tira, "Espainiako hauteskundeetan parte-hartze maila handiak" bezalako adierazpenek Europan demokrazia osasuntsua dela erakusten omen dute... ●

Apirilak 28



JON ALONSO
IDAZLEA

Jeltzaleen mundua ezagutzen duen adiskide batek deitu berri dit, apirilaren 28ko hauteskundeen emaitzen gainean berba egiteko. Harrituta dago: EAJk inoizko emaitzarik onenak lortu ditu, historikoak; bederatzi senatari, sei diputatu, hau da, hamabost lagun Madrilen ongi kolokatuta; Araban lehen aldiz irabazi, Bizkaian beti bezala eta Gipuzkoan ere bai...

Eta hala ere, bere aburuz, jeltzaleak prentsa aurrean agertu zirenean hauteskunde gauean, hitzek gauza bat esaten zuten, eta aurpegiak beste zerbaitez. Hitzak irabazleek ziren, baina aurpegiak ez omen zuten hainbesterako poza erakusten: "Hain ohituta al daude irabazten, edo beste zerbaitez kezkatzen zituen?" da bere buruari egiten dion galdera. Sanchezek Ciudadanosekin ituna egingo duela ziurtat jotzen dutela izan behar omen da jarrera horren erantzuna. Alegia, hala izatera, hauteskunde hauek ekarri dieten paradoxa dela historiako emaitzarik onenekin inoiz baino zeresan gutxiago edukiko dutela Madrilen, Sanchezek eta Albert Riverak bat egiten badute.

Pentsa daiteke segurua dela foralak eta udal hauteskundeak pasa arte ez dugula jakingo zer itun egingo den Ma-

Udal eta foral
hauteskundeak pasa arte
ez dugu jakingo zer itun
egingo den Madrilen, eta
bitarte horretan dena
izango da planta, itxura eta
kalamarraren tinta; alabaina
igande gauean bertan
gaztigatu zuen Sanchezek
berak ez diola inori
atea ixten

drilen, eta bitarte horretan dena izango dela planta, itxura eta kalamarraren tinta; baina atzo bertan gaztigatu zuen Sanchezek berak ez diola inori atea ixten, non eta "Riverarekin ez" oihuka ari ziren jarraitzaile sutsuen saldo baten aurrean. Espainiako tertuliano zuhur askotxok ere PSOE-Ciudadanos itunaren alde egiten zuen argi eta garbi, atzo bertan, eta oso litekeena da horixe izatea diruak nahi duena, pentsioen erreformarekin eta programa ekonomiko

neoliberalaren gainerako neurriekin segitzeko, PSOEren papera erreforma horiek pixka bat galgatzea eta makilatzea izango dela. EH-Bilduk hauteskundeak baino lehen egiten zituen analisisetan ere hauxe zen aurreikusten zuten hiru agertokietako bat.

Beste paradoxa bat: Riveraren handinahia da, beharbada, itun hori oztopen ahal duena; baldin eta kalkulatu badu oposizioa pasatuta PSOE desgastatu eta lau urte barru hauteskundeak irabazten ahal dituela. Gizartean sumatzen den giro polarizatuak horretara gonbida lezake. Gaur eskainiko zaiona hartu ez, lau urte barru dena hartuko duelakoan. Betiko dilema, eskura dagoen ondasunaren eta balizkoaren artean aukeratu beharra.

Nafarroan EH-Bildu Bel Pozueta Madrileramaterako puntuan egon da; laurhun bat boto baino ez ditu falta izan. Geroa Baiko Koldo Martinez Voxen pare geratu da, gutxi gorabehera. Dagoeneko alferrekoak dira "gogoetarako deiak" eta horrelakoak, aski argi baita elite politikoez dutela kalearen sentimendua aintzat hartzen. Otoitz egitea baino ez zaigu geratzen, foru eta udal hauteskundeetan botoa bestela ematen dela diotenen arrazoia izan dezaten. ●

Leurtzako urtegi inguruan
ANFIBIOAK eta NARRASTIAK
EZAGUTZEKO TXANGOIA

LEURTZAKO URTEGIA Informazio gunea
MAIATZAK 18 10:30-14:00
IZEN-EMATEA* argiak100urte@argia.eus

*Kopuru mugatua: 35 pertsona

Joko arriskutsua hasi du Lanbide Heziketako Sailburuordetzak



REBEKA UBERA
EH BILDU-KO LEGEBILTZARKIDEA

Harriduraz irakurri genuen ARGIAk publikaturiko *Irregulartasunak Lanbide Heziketaren finantzazioan?* artikulua (2630. zenbakian). Baina zur eta lur geratu ginen artikuluan aipatzen zen jarraibidea, Lanbide Heziketako ikastetxeetara bidaltzen zena, eskuratu genuenean. Sinestezina Administrazio Publikoan diharduen arduradun batek gisa horretako jarraibide bat idaztea. Edo baliteke Lanbide Heziketan orain arte hori oso jarduera normalizatua eta barneratua izatea, kontziente izan gabe Administrazio Publikoan diru publikoa tartean dagoenean jarraitu beharreko betekizunez eta deialdi publiko eta programak garatzeko araudi zehatzez, lehen Lanbide Heziketako Zuzendaritzan eta orain Sailburuordetzan bertso librean aritzeko inertiak bultzatuta, agian.

Argibideak eskatzeari ekin genuenean, lehen erantzuna jaso eta ikustean lehendakariak gaia zuzenean Hezkuntza Sailera eta, zehatzago, LHko Sailburuordetzara igortzen zuela, lehendakariak ezer ez dakiela erantzuten zitzaigunean eta ezer argitzen ez zela ikusita, berehala ulertu genuen ARGIA zuzen ari zela bere artikuluan. Hala berretsi dugu Legebiltzarrean ikusi dugunean apirilaren 10erako deitua zegoen Hezkuntza sailburu eta sailburuordearen agerraldia atzeratu dutela agenda arazoak direla eta. Bitxia hain justu egun berean sailburua beste gai bat azaltzera etorri denean. Agenda arazoak noiz arte luzatuko dira? Maiatzeko hauteskunde osterara arte? Ala gaia konpontzeko, jarraibidea aldatu, TKgune programaren dekretua onartu eta etxea ordenatzen duten arte? Horrela bada, gaitzerdi.

Baina galdera nagusia da: eredu hau legezatu behar da? Alegia, ikastetxe eta enpresen saretzea oinarritzen bada ikastetxeek zerbitzuak eskaini eta enpresek fakturak ordaintzean, programa honek edo ezohiko finantzazio honek legezta-

Honi guztiari saretzea, elkarlana, berrikuntzaren transferentzia deitu zaio. Hau ez al da kompetentzia desleiala? Ez al litzateke Lanbide Heziketako ikastetxeetatik ateratzen diren ikasleei lana kentzea, merke-merke?

tzeko aukera izan behar du? Hala bada, ikastetxeek jarduera ekonomikoen zergan alta eman beharko dute. Ematen duten Lanbide Heziketa familia bakoitzeko jarduera ekonomikoen zergan alta bat eman beharko dute? Eskaintzen dituzten zerbitzuei BEZa aplikatu behar bazaie, nola kobratuko dute eta nola aitortuko dute? Nola ekidin da orain arte BEZa ez kobratzea? Erakundeetatik iruzur fiskala bideratu eta legezatu daiteke?

Bidalitako erantzunetan hainbat lege eta dekretu orokorreko artikulurekin legebiltzarkideak nahasten saiatzen diren arren, agerian geratzen da programa zehatz honen araudi falta.

Ohiko finantzazioaz gain, ikastetxeak deialdietara aurkeztu behar izaten dira programa eta laguntza desberdinetara sarbidea izateko. TKguneren programan ez! Ez ikastetxeak, ez eta enpresak ere. Hemen, ez dakit nork erabakitako enpresen zerrenda bat pasatzen zaie ikastetxeei. Eta zein da irizpidea? Zeren arabera enpresa batzuk bai eta ez besteak? Nahiz eta ikastetxeei, hala erabakiz gero, beste enpresa batzuetara joateko atea irekitzen zaien, baina finantzazio gehigarrik gabe. Bisitengatik, proiektuengatik eta zerbitzuengatik jasotako diru gehigarria. Helburua, lau bisitako

proiektu bat eta bost proiektuko zerbitzu bat. Irakasleak komertzial lanetan. Honi guztiari saretzea, elkarlana, berrikuntzaren transferentzia deitu zaio. Hau ez al da kompetentzia desleiala? Ez al litzateke LHko ikastetxeetatik ateratzen diren ikasleei lana kentzea, merke-merke?

Larria da baita ere jarraibidean ageri diren hainbat baieztapen. Adibidez: "Bisitak eta proiektuen definizioa finantzatuta daudela aipatzea ekidin behar dugu". Enpresa txikiak engainatu nahi dituzte ala?

Nola erabiltzen da guztion diru publikoa? Jarraibidean zehazten da Lehendakariatzako %25eko laguntza baliatzeko, enpresari zerbitzuaren %100eko balioarekin aurkeztuko zaiola faktura eta bertan adieraziko zaiola %25eko laguntza aplikatuko zaiola. Fakturak prestakuntza eta aholkularitza kontzeptuan, eta ez berrikuntza kontzeptuan. Eta nola fakturatzen da ikastetxe integratuetan? Bestelako ikastetxeetan? Hau irakurri nuenean, ulertu nuen duela pare bat urte ikastetxe integratu bilakatzeko zegoen presa, IFZ identifikazio fiskaleko zenbaki propioak izateko. Baina beste ikastetxe ereduak Jaurlaritzako IFZ dute, edo? Ikastetxeak fundazioak sortzen ari dira. Hainbat ikastetxe hainbat fundazio, horrela bideratuko da eta hori izango da lege zirrikitua? Erpin anitzak dituen "joko" arriskutsua hasi du LHko Sailburuordetzak, berrikuntza eta saretzearen izenean ikastetxe eta irakasleen funtzioak eraldatuz, irakasleei komertzial funtzioak emateraino.

Sailburuordetza bikain ari da Lanbide Heziketaren ideia saltzen. Baina ideiatik harago, herritarron artean hain ezezaguna den Lanbide Heziketaren kudeaketa ordenatu eta zuzendu beharko luke Gobernuak; eta ez digu balio orain arte marko juridikorik izan ez duen aitzakia. Hasteko, ardura publikoek diru publikoaren kudeaketa zuzena eskatzen dutelako. ●

BERLIN

Nola berreskuratu etxejabe handien pisuak herritarrentzat

“Etxejabe handiei milaka pisu kentzeko legea bozka dezakete Berlinen”, informatu zuen hedabide honen edizio digitalak aurtengo otsailean. Etxebizitzen garestitzeari aurre egin asmoz, tabu bat hautsi da Alemaniako iritzi-publikoan: etxejabe handien pisuak jabego publikora itzularazteko erreferenduma egitea mahai gainean dago. Herritarren bultzadari esker lortu da eztabaida sortzea pribatizatutako esparru bat gehiengoaren eskuetara itzuliko luketen politiken premiaz.

 LANDER MAJUELO ITOIZ

Andrej Holm (Leipzig, 1970), soziologo eta Humboldt unibertsitateko irakaslea da. Urbanismoan eta gentrifikazioan aditua, Berlingo Udaleko etxebizitza idazkari izendatu zuten 2016an. Handik gutxira, presio politikoen eraginez, eta Stasin izan zuen iragana medio, Udaletik eta unibertsitatek kaleratu zuten arte. Soziologiako ikasleek fakultatea hilabetez okupatu eta gero onartu zuten berriz. Egun Udaleko etxebizitza saileko aholkulari gisa ere badihardu. Berlinen higiezinaren esparruak bizi duen egoeraz hitz egin dugu berarekin, baita erreferendum proiektuak izan dezakeen potentzialaz ere.

Urteak dira Berlin hiri gisa hazten ari dela. Egun sekulako abiadan. Higiezinak al dira urre berria?

Hala da. 2009tik, finantza krisiaren ostean, higiezin enpresen aktibitatearen bolumena sei mila milioitik egungo hogeita mila milioira igaro da Berlinen. Hirukoiztu egin da. Eta ez da higiezinaren kantitatea bereziki igo, baizik eta dauden prezioa. Higiezin enpresen sektorean “betoizko urrea” esaera erabiltzen dute. Betoian inbertitzea. Honek Berlinen badu beste ondorio politiko bat: hiri osoaren balioa

handitzea; eta Berlin bezalako alokairu-hiri batean ondorio sakonak ditu.

Inbertsio eta diru asko iristen ari da hirira. Gentrifikazioa arazo nagusietako bat bilakatu da. Zein neurritan eragiten du auzokideen bizitzan?

90eko eta 2000ko hamarkadetan gentrifikazioa auzo-arazo gisa behatzen genuen. Eztabaidatzen genuen ea zein auzotan gertatzen zen edo ez; eta ikusten genuen auzokideen kanporatzea gertatzen zela beste auzo batzuetara alokairuak eta bizi-kostua igotzen zirelako. 2012tik argi dugu alokairuen prezioen igoera ezin dela auzo batzuetara mugatu eta hiri osora zabaldu dela. Kanporatze prozesuak hiri barruti osoa barnebiltzen du eta probintziaren zati batzuetara ere hedatu da. Jada ez dago tokirik non esaten ahal den “hau merkea da, hona etor daitezke txiroak”. Gure ikerketek azaleratzen duten egoeran, alokairua igotzen ari da eta jendea txiroegia da kanporatua izateko. Mudantza bera ezin dute ordaindu. Ondorioa da auzokideek kanporatze prozesuari uko egin eta euren etxe propioak defendatzen dituztela.

Bestalde, gentrifikazioarekin diru gutxi dutenak dira beti kolpatuenak alo-

kairua igotzean. Soldataren erdia edo %60 etxebizitzarako bada, diru gutxiago dago lagunekin egoteko, janaria erosteko, eskolako liburuetarako edo oporretarako. Aldi berean, jendeak gehiago egiten du lan, bi edo hiru lanpostu hartuz, horrekin alokairua ordaintzeko, ez bizitza hobetzeko. Gentrifikazio prozesuaren beste aurpegia bizi mailan gertatzen den kanporatze edo jaitsiera da: auzoetan dugun adierazle ikusgarriena denda txikien edo komertzioaren desagertzea da. Auzokideek baino babes mekanismo gutxiago dituztelako. Irabazien bila, lokal hauen jabeek errazago moztu diezaiekete kontratua bere dendan produktuak merke saltzen dituzten saltzaileei. Gero datoz Starbucks bezalako kate ezagunak edo ostalaritza orokortua. Auzokideek ez dute jada merke erosteko edo elkarrekin topo egiteko lekurik.

Etxegabeteak dira gentrifikazioaren ondorio gogorrenetariko bat. Asko dira Berlinen ere. Zergatik ez da lortu hirian hauen aurkako eztabaida edo borrokarik zabaltzea?

Beno,artzelona bezalako hiri batekin alderatuta zenbakiak baxuagoak dira Berlinen. Etxegabete asko dugu halere, 7.000





UMBRUCH BILDARCHIV

HERRITARREN ALDARRIA. MOBILIZAZIO JENDETSUEN BIDEZ LORTU DUTE BERLINEN ETXEBIZITZAREN ARAZOA UDALAREN AGENDAN SARTZEA ETA ETXEJABE HANDIEN PISUAK JABEGO PUBLIKORA BUELTATU AHAL IZATEKO ERREFERENDUMA MAHAI GAINEAN EGOTEA.

edo 8.000 urtero. 23 bat genituen egunero. 2015etik jaitsi egin dira eta egun hamar bat ditugu hiru milioi eta erdi biztanleko hiri batean. Kaltetuentzat dramatiko da, baina ez da arazo nagusi gisa ikusten. Gehientzat alokairuen prezioen igoera da arazo nagusia. Eta horren ondorio nabarmenena, bizitzaren beste esparruetatik aurrezten dela alokairua ordaintzeko beharrezkoa dena. 2014an egin ziren saiakera militante batzuk, kaleak moztuz etxegabeteak geldiarazteko; arrakastatsuak izan ziren, baina ez zuten lortu beste estatu batzuetan bezala epe luzerako izaerarik. Bada etxegabeteen aurkako elkarte bat, PAHren antza handia duena eta laguntza zuzena eskaintzen duena, baina ez da masa mugimendu bat.

Airbnb bezalako plataformak aspaldi bilakatu dira, etekin izugarri baina betebeharrak gutxierekin, hirigintzan errotik eragiten duten aktore.

Bai, ia Europa osoko hirietan bezala, ber-

din Paris edo Amsterdam izan, Berlinen 24.000 edo 25.000 alokatzen dituzte plataforma horren bidez. Airbnb bidez alokatu pisuek etxebizitza behararen egoera zailtzen dute, ez baitaude esku-ragarri; eta auzo zehatzetan arazo argia dira, oporretarako ehunka pisu gertu direla. Hiri mailan, ordea, arazoaren %0'8a besterik ez dira. Askoz garrantzitsuagoak dira ehunka milaka etxebizitza alokatu edo eraikitzen dituzten higiezin enpresa handiak. Eguneko gobernuak (sozialdemokratik, sozialistak eta berdeak) argi adierazi du legedian, formula horretan etxe bat urtean soilik 30 egunez alokatu daitekeela.

Zaila da mugak ezartzea. Badira izen propio baten atzean berrehun etxebizitza alokatzen dituzten enpresak eta badira alokairua ezin ordainduta asteburuetan euren pisua alokatzen duten auzokideak ere.

Hori arazoari gehitzen zaio. Hor bada za-

tiketa bat, hiri askotan bezala. Esparru askotan Airbnb garestituriko alokairua ordaintzeko erabiltzen da. Eta beste esparru askotan, negozioarako eredia da etxea alokatzea. Horregatik saiatu behar dugu negozioa egin nahi dutenak mugatzen, ez bere etxeko gela bat alokatzen duen amona. Legea nahiko berria da eta hor zuzenketak egin behar dira. Adibidez, kalean bizi diren etxegabeei aterpea ematen dien norbaitek ez luke arazorik jasan behar.

Alokairuen merkatuan eraikuntza enpresa erraldoiak sartzeak gentrifikazioaren arazoa gaindiezin bilakatzeko du?

Arazoa larritu eta alokairuen igoeraren problema eremu berrietara zabaltzen dute, gentrifikagarriak ez zirela uste genuen eremuetara. Nondik lortu dituzte egun dauzkaten jabetzak? Lehenago politikatik eman zen etxebizitza sozialen pribatizazioan dago jatorria. Higiezin enpresa handiek ez dituzte soilik etxe zaharrak

berritu eta garestitu. Ehunka milaka pisu dituzte langile auzoetako blokeetan. Bertan bizi da hirian beste inon alokairua ordaindu ezin duen jendea; eta halere, prezioak igo dituzte. Gentrifikazioa zabaldu dute eta ez dago nora joan. Etxebizitza sozialen parkea zena burtsan darabilte.

Askotan idatzi duzu auzokideen ahalduz eta borroka amankomunen beharraz, bereziki ikuspegi migrante-tik. Azpitik sorturiko aliantzak erabakigarriak suertatzen ari dira?

2010ean, alokairuen igoerak etxebizitzaren krisia eragin zuenean, bere estatistikei begira, gobernuak adierazi zuen egoera ez zela larria. Egunerokoan, baina, sentsazio orokorra bestelakoa zen: alokairuen igoera eta kanporatua izatearen bizipena. Auzokide elkarte ugari antolatu eta etxebizitzaren arazoa publiko egiten hasi ziren. Denbora luzez medioetan etxebizitzaren arazoaren inguruan idatzi zena elkarte hauek idatzia zen. Edo kazetariak auzia lantzen zutenean auzokideek egindako ikerketa eta salaketak zeuzkaten soilik eskura. Etxebizitzaren auzian definizioaren bataila auzokideek irabazi dute, politikak arazoa ez zuelako ikusi nahi izan.

Bestalde, auzokideek euren pisu eta blokeetako arazoak hain zehazki lantzean eta konponbide zehatz eta egingarriak aurkeztean eraikin eta auzoetarako, etxebizitza politika orokor bat oratu dute apurka. Egungo gobernuak etxebizitza programan berez gutxi idatzi eta ia dena eginga jaso du auzo elkarte eta auzokideen ekimen hauetatik. Azpitik osatutako antolaketak finean eraldaketa potentzial handiena ekarri du etxebizitza politika aurrerakoi honetara. Azken aldarria ere, Berlingo higiezin enpresa handien desjabetzea, azpitik dator gobernuaren politikara.

Hiriko lurzoru legearen oinarriko erreforma eta borondate politikoa lirarete konponbidea lortzeko beste osagaiak?

Berlinek 90eko hamarkadatik hiri politika neoliberal drastiko bat jasan du. Lurzoru publiko ugari, eta asko ziren hirian, erosle hoberenari saldu zitzaizkion. Gero lurzoru hauek ez zeuden eskura hiria ongi garatzeko, eta behar izanez gero, berreskuratzeko ia ezinezkoak ziren. Egun, saldu beharrez gero, ikuspegi sozial batekin banatzen dira, ez erosle hoberenari, eta aldi berean bada duela hiru lau urte poltsa bat etxebizitza so-

zialak eraiki behar balira lurzoru berriak erosteko. Ez da, beraz, lurzoru legearen erabateko erreforma, zeinean hiriko lurra ez dagoen jada salgai; baina bai 180 graduko aldaketa bat.

"Etxebizitzaren auzian definizioaren bataila auzokideek irabazi dute, politikak arazoa ez zuelako ikusi nahi izan"

Aspaldian auzokideen protestek ez zuten eragin politikorik lortzen. Azken urteotan osatutako legeak antzuak izan dira higiezinaren prezio burbuila geldiarazteko ere. Nolatan da oraingoan dena ezberdina?

Ez da hala baina. Berlinen historian eraldaketa politikoak ia beti protesten bidez ezarri dira. Adibide argi bat: 70eko hamarkadan hiriaren berritzea etxebizitza historikoak bota eta bloke berriak eraikitzean zetzan. Baina 1980an protesten eta ehunka etxebizitzaren okupazioaren bidez, etxebizitza zaharrak babestu eta lortu zen, pausoka, eman beharreko hiriaren berritzea. Egun ere, hiriko parke handiena erreferendum baten bidez mantendu da, politikak etxebizitzaren eraikitze espekulatiboari ia emana baitzion. Hiriko po-

litika duela urte asko azpitik datozen protesta mugimenduek landutako auziekin osatu da. Horregatik behatu behar zaio itxaropenez. Berlingo higiezin enpresa handiena desjabetzeko saiakera aurrera ateratzen bada, ez da salbuespena izango baizik eta eraldaketa mugimenduen harran kokatu beharreko arrakasta.

Nola gaintzen da mugimendu sozialen edo auzokideen protesten eta politika profesionalaren arteko harreman zaila?

Dagoen fase zailenarteko bat da. Ezkerra eta berdeak azken urteetan oposizioan egon dira, oinarrian dauden mugimenduekin elkarlanean. Orain harremana aldatu da. Klean zegoen jende bat gobernuan dago. Orokorrean, bada aukera bat emateko jarrera, dagoen koalizioa eratzen ahal den ezkerreko koalizio hoberena delakoan. Mugimendu sozialek duten indarra kontuan hartuta, ez dakarte kritika gogorrik. Gehiago egiteko galdegiten zaio baina ez da gobernuaren dimisioa eskatzen. Norabide egokian doala baina azkarrago joan behar lukeela diote. Ez zegoen orain arte horrelako hartu-emanen esperientziarik, ez gobernuan ez mugimendu sozialetan. Denek azkar ikasi behar izan dute mugimendu bat ez dela gobernu; eta gobernu ez dela mugimendu bat. Hirian ahal bezain eraldaketa sakonenak lortzeko hartu-emanak nola osatu, horixe da denek orain abiatu duten





LANDER MAJUELO ITOIZ

ANDREJ HOLM SOZIOLOGOAK ARGI DAUKA: "ETXEBIZITZAREN AUZIAN ERREALISMO ZENTZUDUN BATEK BIDEA EGIN DU. ARGI GERATU DA EKIMEN PRIVATUAK EZ DUELA ARAZOA KONPONDUKO"

ikasketa prozesua. Desjabetzearen inguruko erreferenduma saiakera ona da. Azpitik sakon landu eta irabazitako erreferendum bati ezin dio gobernua uko egin. Ikusiko dugu, luzera begirako prozesua da erreferendumarena.

Berlingo higiezin enpresa nagusien ehunka milaka etxebizitzaren aurkako udal desjabetze edo bergizarteratze baten aukera dago mahaiaren gainean. Gaia duela gutxira arte tabua zen.

Bai. Arrazoietako bat da politika neoliberalaren garaian gestio pribatua gestio publikoaren aurretik lehenetsi zela ia leku guztietan. Gainera, historian zehar, jabetza pribatuak publiko bihurtzea soilik gobernu sozialistetan gauzatu da. Lurraren erreforma iraultzaren ostean lortu da, edota Armada Gorria Alemanian sartu eta ekialdean ahalbidetu ostean. Interes kontua da. Milaka milioiko negozioa dugu hemen. Tabua dator, higiezin enpresek eta euren lobbyek lortu zutelako desjabetzearen ideia diktadura sozialisten politikarekin lotzea. Egungo auzokideen ekimenek, baina, auziaren eztabaida objektibo bat erdietsi dute. Eztabaida askotan, ahoa aparretan dutela "komunistak bueltan datoz!" diotenen aurrean, argi geratu da auzokideek dakartzaten proposamenen erradikalatasuna ez dela ispilu bat besterik, jasaten duten arazo larriarena, alokairu igoerena eta kanporatzeena.

Diskurtsoa harrigarriki mugitu da

etxebizitzaren eztabaidan. Bestela ere, gaur egun asko hitz egiten dugu alemaniar gizartean diskurtsoaren lekualdatzeaz, baina betiere parlamentuan eskuin populistarantz edo migrazioaren gaian arrazismorantz hausten ari diren tabu humanistei buruz. Alegia, eztabaidetan gizartea eskuinerantz doalako sentsazioa dago. Eta etxebizitzaren auzian, kontrara, aurkako norantzan oso bizkor doan burbuila bat dugu. Esperantza badugu etxebizitzaren auziaren eta eguneroko politikaren eztabaiden bidez, gizarte-erlidaketen aukerara hurbiltzeko. Ardura publiko edo amankomunaren inguruko eztabaidaren bidez neurriak finkatzen ahal baditugu, eskuin populistak askoz zailagoa izanen du bere ideiak zabaltzeko.

"Berlinen historian, eraldaketa politikoak ia beti protesten bidez ezarri dira"

Kapitalismoaren ondorioek era hain argian bizitza eta hiriak txikitzen ditzutela, zergatik da oraindik ere hain zaila eredu ekonomikoari buruzko eztabaida bat zabaltzea? Ez al du alemaniar ekonomiaren osasun onak gizartearen zati handi baten estutasun ekonomikoekin talka egiten?

Desjabetzearen tabuaren antzera, Ale-

manian antikomunismoa oso presente dago. Gerra Hotzaren garaian ereina, 1990eko batasunaren itzalpean eta Alemania ekialdeko bizipena izan zenaren mespretxuan hazi da. Sozialismoarekin zerikusia duen edozer zuzenean Stasirekin, harresiarekin edota tiroekin lotzen da. Halere, eta etxebizitzaren auzian adibidez, sekulako potentziala dago, esaten ahal baitugu hiri honetan bertan beste praxi bat ere eman zela. Egon zen benetako esperientzia bat, zeinean higiezinak eta hiria beste era batera antolatziren. Ez da zergatik dena berriz ere berdin saiatu behar, baina publikoki etxebizitzaren auzia antolatzen hasteko adibide ona da. Beste ekonomia eredu batzuen eztabaida oraindik ere zaila da, baina etxebizitzaren auzian errealismo zentzudun batek bidea egin du, zeinak argi duen ekimen pribatuak ez duela arazoa konponduko. Inor ez da ari etxebizitza politikan eredu sozialista bat ezartzeaz, baina "ardura soziala" edota "ongizate amankomunaren arautzea" berriz ere agertzen ari diren kontzeptu ederretako batzuk dira.

Gentrifikazioa arazo globala da. Euskal Herrian ere ari da sakontzen. Badira protesta antolatuak, baina politikari gehienek oraindik ere modernizazio prozesu positibo gisa dakusate. Protesta, erreferendum eta desjabetzeaz konponbide bat lortzeak ordea aukera berri bat dakar. Izan liteke Berlin adibide bat munduarentzat?

Beste inon ematen den mugimenduaren eragina etxean ezin da ziur neurtu. Baina hiri askotan gertatzen den prozesua da hasieran gentrifikazioa politika ofizialek garapen positibo gisa ulertzea. Zerikusia du oraindik ere nagusi dugun neoliberalismoaren lehia eta hazkunde logikarekin. Diotenez, hazkunde oro, inbertsio pribatu oro, ona da eta eragin positiboak ditu. Bestelakoa da zuzeneko esperientzia masa turismoarekin edota higiezinaren espekulazioarekin, ordea. Lisboan luzez esan zuen ezkerreko gobernua on zela mundu mailan erakargarriak izatea, alde zaharra salbatuko zutelakoan. Gero, baina, ostu dizuten antzoki batean esnatzen zara. Argi utzi behar zaie politikariei gentrifikazioak ez duela garapenarekin zerikusirik, arazo bat dela. Hori lortuta etorri ohi da politikarien aitortza: arazo bat dela onartzen dute, baina beste biderik ez dela argudiatu. Horren aurka, Berlingoa bezalako ekimenak garrantzitsuak dira, argi baitago beste bide posible bat izan, badela. ●

Ø200

SLOW · KAFETEGIA

BERTAKOA · GARAIKOA · EKOLOGIKOA
GEUK PRESTATUA · ERANTZUKIZUN SOZIALA



Altuna baserria · Arrillaga Txiki baserria · Basatxerri · Behieko Sabekoetxea · Biok gazta
Bodegas Lezaun · Carlos Petrina · El Alcaraván · Ertxieko · Euskal Herria Esnea
Euskal Untxia · Goi Eko Haragia · Karabeleko · Goiti okindegia · Gumendi
Larreta Esnekiak · Lur Lan · Lurrarte · Mahala · Nabarreko · Oresa gazta
Pikunieta baserria · The Loaf · Tolosako Merkatua · Urrullo agroaldea · Zalmendi

ORDUTEGIA | Astelehenetik ostiralera | KAFETEGIA 07:00-17:00 | JATETXEA 12:30-15:20
Hernani, Gipuzkoa | 943 265 022 | www.diametro200.com

Andde Sainte Marie
Akitania Berria Eskualdeko kontseilaria

“AHT-ren dosierra zerotan dago, epe ertainean ez da mugituko”

1960, Landibarre (Baxenabarre). Laboraria eta politikaria. Akitania Berriko kontseilaria Alderdi Sozialistaren (PS) izenean eta ezkerreko independentez osatu zerrendan. Lanaldiaren bi heren hautetsi gisa ari da eta beste herena baserrian: “Ikasle laborari gazte mugimenduan barneratu nuen ezkerreko sozialista izatea, eta ezkerrekoa nintzelako bilakatu naiz abertzale”, erran digu.

 MIKEL ASURMENDI
 DANI BLANCO

Zergatik aurkeztu zinen Frantziako Alderdi Sozialistarekin 2015eko Akitania Eskualdeko bozetan?

Hemezortzi urtez geroztik engaiatua egon nintzen Ipar Euskal Herriko ezker abertzaleko kide gisa. Abertzale Batasuneko (AB) bozeramaile lanetan bukatu nuen nire ibilaldia. 2012an, ABren barruan ildo estrategikoa eta programatikoa landu genituenean, bi ildo garbi agertu ziren: hauteskondeei begirako desadostasunak zeuden. Ez ziren baitetzpada, oinarri estrategiko ideologikoei buruz ezberdinak. Ildo batekoek abertzale ez diren ezkerreko indar politikoekin bidea lantzea defendatu genuen. Gehiengoak kontrakoa erabaki zuen eta utzi nion AB eta EH Bain militatzeari.

Anartean, Ipar Euskal Herriko Laborantza Ganbarako zuzendaritzan (EHLG) ari nintzen. Hautetsiekiko harremanen ardura nirea zen eta EHLGren bitartez hautetsiekin harremanak sakondu nituen. Akitania Berriko Kontseilu Nagusiko zenbait hautetsierekin kontaktuak lotu nituen, baita Alain Rousset presidentearekin ere.

Harremanak nolakoak izan ziren? Ustekabean gertatu al ziren?

Bai, gutxien uste nuenean... 2015ean bozak heldu ziren eta Roussetek hauteskerrendetako lehen lekuetan ezkerreko beste mugimenduei aukera eman zien. PSk, Bearnon, CGTko kide bat onartu zuen, baita EHLGtik hurbil zegoen kide bati lekua irekitzea ere deliberatu zuen. Rousset bera enekin jarri zen kontaktuan modu nahiko naturalean, ados ginen eta ez ginen puntuak eztabaidatu genituen eta akordio bat sinatu genuen. Nik hainbat baldintza jarri nituen: abertzale izateari uko egin gabe, Ipar Euskal Herriari laborantza politikari dagozkion hainbat proiektu eraikitzaileei lotzeko nahikaria adierazi nion. Akitania Berriko kompetentzien bidez lan horri ekiteko kuraia banuela ikusi nuen, banuela nahikari aski ere. Proiektuen diruztatzaile nagusietariko bat da Bordeleko Kontseilu Nagusia.

Abertzaleen artean nolako harrera ukan zuen zure erabakiak? Ia lau urteren ondoren zein da esperientziaren balorazioa?

Banekin abertzale mundutik ohar ezber-

dinak ukanen nituela, baina harriduraz, uste baino jarrera ezkor gutxiago ukan nuen, aipamen gehienak errespetuz eta normaltasun osoz jaso nituen. Kontrakoa ere izan ziren, baina gehienek ulertu zuten nire desmarxta politikoa. Esperientziaz bi hitz: nahiz eta kontseilari lanetan denbora asko eman behar dudana, ez dut kontseilari izatea ofizio eskusibo bezala hartu, laborari gisa eta baserriarekin lotua izateko beharra daukat oraindik.

Ontsa, beraz?

Bai. EMAko kide, IK-ko preso politikoen sustengu komiteen bozeramaile, ABn eta EH Bain aritu naiz. Hogeituz inguru nituelarik abertzale bilakatu nintzen, aitzinetik ezkerrekoa nintzelako. Hemezortzi urteetan gazte ikasle laborarien mugimenduan ibili nintzen, hor barneratu nuen ezkerreko ikuspegia, eta oro har ezkerreko sozialista izatea, ezkerrekoa nintzelako naiz abertzale bilakatu. Beste batzuek agian alderantzizko bidea egin dute, ene ikuspegitik bederen. Politikoki betiere izan dut nahikaria ezkerreko sektoreengana hurbiltzeko, nahiz eta abertzaleak ez izan.



Zure ideiak Akitaniako Kontseiluan aitzina eraman ditzakezu, beraz?

Bai. Ohartu naiz agian une ona zela bide hori urratzeko, nahiz eta batzutan nekadura fisikoa ere sentitzen dudan Akitania Berria eremu zabalean ibiltzean. Haatik, banuen aski indar, nire oinarri politikoe-tatik aldendu gabe, nire asmoak aitzina eramateko. Ardura politiko horren hartzeak betetzen nau. Lortu nahi nuen ordezkartza badut: mendiko laborantzaren eta artzaingoaren ardura izatea. Ari naizen lekuan baliagarria naizela iruditzen zait.

EH Bai uztean, “atera behar da nolabaiteko absolutismo abertzaletik”, erran zenuen. Bizi izan dugun aro politikoaren aldaketaren ondoren, nola ikusi duzu EH Bairen bilakabidea?

Egun ez nuke “absolutismo” hitza erabili. Egoera politikoaren aldaketak politika egiteko molde berrituak ekarri ditu. Nik ez dut nire burua abertzaletasunetik kanpo ikusten, ez naiz erabat barnean ere, ez naiz EH Baiko kide, baina hainbat atal programatikoetan bat egiten dut EH Bairekin. Aipatu duzun aldaketa politiko orokorra aldatzeak “absolutismotik” al-

dentzea ekarri du poliki-poliki. EH Bildu Hegoaldean eta EH Bai Iparraldean bide horretatik doaz. Badago ere hurbiltze bat haien artean, koherentzia eta errespetu osoz eman behar dena seguraski. Oro har, bakoitza bere rolean ari da.

Akitaniako PSko kideek zer-nolako jarrerara izan dute zurekiko?

Batzuek, hasieran, animalia edo kabala arraro bat deskubritu zuten... Gero, denbora joan ahala normaltasunez hartu ninduten. Barne debateetan neure ikuspegiak azaldu ditut, inolako arazorik gabe, bazekiten haiek ados izan edo ez, nire ikusmoldea atxikiko nuela. Rousset presidentearekin hori adostu nuelako.

Urteak joan ahala ohartu naiz beste buruz joateak duen eragin handia, baita debatearen kontraesanetan ere sartzeak: AHT-z, gizarte gaiez, Iparraldearen egituratze politiko administratiboaz aritzeak. Areago nabari dut hori ingurumena, mendiko politika eta ekologiaz ari garenean, kudeatzen ditudan gaiak direlako. Abertzale izateak edo ez izateak ez du eraginik debate horietan. PSk, Europa Ekologistak (EELV), PSTik aldendu den Génération.s

eta ezker ainitzekoez osatuta dago Akitaniako Gobernua eta gehiengo politikoa. Halaber, komisioetan ez gara bakarrak, eskuineko alderdiak ere badaude, baita eskuin muturra ere, oposizioko talde indartsuena bera da. Debateak gogorak dira batzuetan, baina eraikitzaileak. Politika aberatsa eta irekia da.

Eskualdeko kontseilari kargutik nola baloratzen duzu Frantziako Estatuaren lurralde erreforma?

Eskualde Kontseiluak gero eta kompetentzia gehiago eta handiagoak ditu, bereziki Estatuko NOTRe legea –Estatuaren lurralde erreformarako legea onartu zenetik. Oro har, Eskualdeei eta Herri Elkargoei eskuduntzak handitu zaizkie. Eskualdeek Estatuari kompetentzia atal batzuk kendu dizkiote, hala ere, nire gusturako gutxi. Eskuduntza asko kendu zaizkie departamenduei. NOTReren abiaburuan zegoen departamenduak kentzea eta hori garatu behar da oraino, baina Estatuaren barnean lobby indartsuak daude, departamenduei atxikitze ahalegin handiak egin dituzte. Izan ere, departamenduetako eskudun-

tzak hustuz joan dira, nekazal konpetentzietatik %80 kendu diete departamenduei eta eskualdeetara pasa dira. Departamenduetan gizarte konpetentziak geratu dira, eta gainerako gehienak eskualdeetara pasa.

Bizkitartean, Ipar Euskal Herrian Euskal Hirigune Elkargoa sortu da eta ondorioz konpetentzien banaketa inportanteagoak izan dira. Nire kasuan, Eskualdeko kontseilari izanki, aldaketa horiek harrapatu naute bete-betean. Ipar Euskal Herriko gutienezko instituzio hori sortzeak Akitania Berria me-

ga-eskualdean eragin du ere. Euskal Elkargoa Akitania Berriko bigarren hirigune elkargo haundiena da, politikoki oso garrantzitsua. Politika publiko berriak garatzea eta instituzio hori eraikitzen hastea Iparraldean aurrerapen handia izan da. Pisu politiko berri horretaz kontziente izan behar dute eragile guztiek, baita Alain Roussetek ere.

Mendigunearen eta Artaingoaoren ordezkaria zara. Kontseilari gisa zein dira zure xedeak?

ELBko eta EHLGko kide nintzen eta beti

naizenez gero, ene xedeak EHLGko asmoak Kontseilura eramatea izan da, ahal nuen neurrian. Horretan ari naiz, ez esklusiboki. Bi norabide agertzen dira argiki: laborantza politika publikoa eraman daiteke ikuspegi produktibista eta liberalek, FNSEAk egiten duen bezala. Edota beste ikuspegi politiko eta sindikala dituen Confédération Paysanneren ildoan, Iparraldeko EHLGk lantzen duena. Nik bigarren ildo hori lehenesten dut. Hala izanik ere, mendiko laborantza eta artzaingo politikari buruzko proiektu guztiak ez dira baitezpada EHLGn lantzen, Paueko Laborantza Ganbarak daramatzen ildo batzuk ere kontuan hartu behar ditut. Gure lurralderako proiektu eraikitzaileak eta osagarriak izanez gero, bi ildoak uztartzen saiatzen naiz.



“Hemezortzi urteetan ikasle laborarien mugimenduan ibili nintzen, hor barneratu nuen ezkerreko ikuspegia, eta oro har ezkerreko sozialista izatea, ezkerrekoa nintzelako naiz abertzale bilakatu”

Bi laborantza ganbara dira. Bitxia.

Orokorrean erran nezake, panorama berezia eta berezitua dela, bakoitzak bere lekua hartu du aski naturalki. Azken hauteskundeek Ipar Euskal Herriko laborantza ikuspegiaren ordezkaritza berdintsua atara dute. Emaitzen polemikaren gainetik, ELBk gehiengoa dauka. Debatea kontrajarria da laborantza munduan, demokratikoa, batzuetan noziboa izaten ahal da, baina baita eraikigarria ere, bi aldeak ditu, politika orokorrean bezala funtsean.

EHLG zer da ilegala, alegala, legala? Hori bai fenomeno!

Hori gai funtsezkoa da niretzat. Rousseten proposamena onartzeko arrazoietako bat izan zen. 2015ean, eskualdeko ezkerreko gehiengoa bidelagun eraginkorra zen EHLG ofizialtzat hartu ahal



izateko. Hautagai izatea onartzeko hori oso inportantea izan zen, eta harrez gero, xumeki erran dezaket indartuta atera garela elkarlan horretatik. Eskualdeko Kontseiluarentzat Euskal Herriko Laborantza Ganbara bidelagun premiakoa da, sinesgarritasuna irabazi du. Laborarien dosierak lantzen ditu, noski ondoan Paueko Ganbera dagoelarik. Proiektu batzuetan laguntza bientzat ekartzea ezinbestekoa da Eskualdeko Kontseiluaren aldetik.

Mendiko eta ordokiko laborantzak daude. Aise al da biak akomeatzea?

Gaia biziki minbera da. Nire jokamoldea sindikalgintza politikotik dator, dirutza publikoaren laguntza handienak, nolabait, ordokietako laborantza handiei joaten zaizkie, arto eta zekale egileei, Akitanian estatuan baino gutxiago, baina nire gusturako gehiegi halere. Eskualde Kontseilua den "botere gune" horretatik badut aurrekontu bat kudeatzeko ahalmena, eta saiatzen naiz oreka bat ekartzen diru laguntza horiek banatzerakoan. Nik uste, iraganean baino diru publiko gehiago banatzen zaiola mendiko laborantzari, baita hurbileko eta kalitatezko ekoizpenei ere. Horretan ari naiz agintaldian.

Garraioa hizpide. Nola ikusten duzu AHTren proiektua?

AHTri baino garrantzia handiagoa ematen diot Baiona eta Donibane Garazi arteko trenbideari. Lorpen handiak izan ditugu tokiko klase politiko orokorren kontra, Estatuaren kontra, Roussetek jakin izan du eraberritzen trenbide hori eta orain eguneroko trenen frekuentzia handiago ematea dagokigu. Baina egina dago. Bestalde, AHTren dosierra zerotan dago. Nire iritziz, epe labur eta ertainean ez da mugituko, ez Rousseten ikuspegia aldatu delako, inondik inora ere, berak baditu argudioak proiektua erabat ez baztertzeko: egunero autobidetik pasatzen diren milaka kamioak nahi ditu kendu eta haien merkantzia trenbidean ezarri. Baina, badaki ere Akizetik Hendaiara doan AHT garestiegia dela, baita abiadura handiko trena egungo trenbidetik pasa daitekeela ere, burdinbidea moldatuz gero. Eztabaida orokorra da Frantziako Estatuan eta tren mota horiek ez dute premia dirua lortuko, dirua ez dagoelako mega-proiektuentzat eta bereziki Europatik heldu behar den sosa ere eskas delako.

Akitaniako presidente Alain Roussetek zer iritzi du Euskal Herriaz?

Roussetendako Euskal Herria urruna bezain hurbila da. Urruna, bera ez delako euskalduna, ez delako hemengoa, hemengo errealitatea behatzen duelako eremu zabalago batetik, beraz, bere ikuspegia horren arabera da. Dosier asko ditu trenkatzeko, hala ere, hurbila da, hemengo indar harremanak, gutxi-asko, ezagutzen dituelako. Roussetek, apaltasun osoz diot, Akitania Berrian dinamika eta bizia inon bada -soziala, ekonomikoa, kulturala eta identitatearen aldekoa- berak badaki hori Ipar Euskal Herrian dagoela. Eta, oro har, Euskal Herrian osagai horiek badaudela, bere lurraldea euskaldun gisa aldarrikatzen duen populua, nahiz eta hiru eremu administratiboetan banatuta izan, eta badaki ere lurralde horren parte bat administratzen duela, areago ezagututa Euroeskualdeak hartu duen pisua. Akitania Berria zabala izanda ere, EAE, Nafarroa eta Iparraldea, eta azken finean Euskal Herria, Euroeskualdearen iparrorrazak direla badaki, proiektu erakitzaile nagusiak bertatik abian baitira.



“Estatuak bere legediaren bitartez Iparraldeko instituzio politiko baten sorrera ahalbidetzea ez da gauza tipia izan”

Euskal Hirigune Elkargoa hizpide orain. Aldarrikatutako Lurralde Elkargoren orde, abertzale gehienek onartutako erakundea da. Abertzale batzuen frustrazioa agerikoa izan zen halere. Zein da zure aburua?

Euskal Elkargoak hastapenean ez du denon gogoasa, eta egun ere ez, hala ageri da EH Baiko hainbat kideren erranetan. Baina, oro har, frustrazio horrekin batera, bidezkoak diren aldarrikapen politiko abertzaleak bideratzen ari dira, sektore guztiak kontuan hartuta. Nire aburuz ez dago kontraesanik, aipatu dugun egoera politikoaren aldaketak ekarri zuen absolutismo hartatik ateratzea, eta ondorioz, ekarri du ere Euskal Elkargoaren bidean

jarritzea. Hau da, gauza konkretuetan zerbitzu publiko politikoa gauzatzea, pragmatismotik bide egitea, eta azken hitz hori ez da hitz itsusia ere. Pragmatismoa sartzen dugu eguneroko gure bizitzan, -etxeko sukaldea kudeatzeko moldean, haurrak eskolaratzean, edo auzoarekin harremanak lantzean-. Pragmatismo dosi batzuk politikan sartzea ezinbestekoa da. EH Baik Euskal Elkargoaren eskuduntzaz harago joan nahi du, funtsean nik ere bai, eta hori ere etorriko da bere momentuan. Estatuak bere legediaren bitartez Iparraldeko instituzio politiko baten sorrera ahalbidetzea ez da gauza tipia izan. Euskal Elkargoari denbora eman behar zaio osatzen joateko, lan horretan ari da. Iparraldean dagoen potentzialtasunak ekarriko du edo ez Lurralde Elkargoa izatea.

Edonola ere, ezker abertzaleko zenbait militante historikoren hala nola berrien kritikak ere badaude: euskararen arloan arrenkurak daude. Nola akomeatu horiek?

Horietako asko ene aspaldiko bidelagunak dira. Nik iraultzaile erreformistatzat dut nire burua. Alta bada, nahitaez, militantziako urteen pilatzeak adinarekin gure arteko errespetua handitzen du. Zuk bezala pentsatzen ez duenarekiko errespetua anitzez handiagoa da 50-60 urtetan 20-30 urtetan baino. Ni 30 eta 40 urteetan baino askoz fiteago asperitzen naiz ehunetik ehunean nirekin ados denarekin. Loriatzen nau debete kontrajarriak eta nolabait betetzen nau enekin ados ez dagoenak, horrek ontzen nau eztabaidaren bukaeran ados ez izanik ere. Hark zerbait ekarri didala uste dut eta nik ere hari agian beste piska bat. Nire kargu politikoa eramateko zereginetan egunero bizi dut errealitate hori. ●



MAIATZAK 26

NAVARRA SUMA OLDARRERAKO PREST

Espainiako hauteskunde orokorren biharamun politikoan gaude oraindik, baina begi bat dagoeneko maiatzaren 26ko udal eta foru hauteskundeetan dago bete-betean, bereziki Nafarroan. Lehia handia eta zorrotza egon da erresuma zaharrean eta ikustear da 2015eko aldaketak zutik iraunen duen, bestelako aldaketa mota bat gailenduko den edo *corralitoa*-ren erregimena itzuliko den. Aukera guztiak dira posible.

 XABIER LETONA

Oraindik hauteskunde orokorren olatuaren aparretan gaudela, apirilaren 28ko datuekin guber- nua sostengatzen duen egungo gehien- goa berresteak zientzia fikzioa dirudi. Hauteskundeak bere testuinguru zaba- lean irakurrita, dena den, bada aukera- rik oraindik, batez ere kontuan hartuta hauteskunde orokorretan eta foraletan desberdin bozkatzen dela. Historikoki, bederen, hala izan da.

Komeriak izango dira lortzeko, bai- na hainbat baldintza betetzen badira, posible da: bat, eta agian garrantzi- tsuena, Geroa Baik bere emaitzak izu- garri hobetzea; EH Bilduk eta Podemo- sek azken emaitzei eustea, eta akaso apur bat hobetzea... eskuina pixka bat jaistea eta PSNk ere nabarmen behera egitea. Posible ote da hori guztia? Mi- raria? Bada, samurra ez da, baina po- sible bai, 2015ean gertatu zen bezala. Orduko gertaera garrantzitsuena izan zen lehenbizitako lortu zela parekatzea aldaketaren indarrak eta UPN-PSN- renak. Podemosen agerpena giltzarri izan zen balantzak aldaketa ekar ze- zan eta eskuinaren banaketa ere bai, Ciudadanosek 200 boto gehiago lortu izan balitu, ez zen gobernu aldaketarik izango. Navarra Suma hori saihestu nahi du, baina horrek bakarrik ez du dena konpontzen.

UPN-K ETA PSN-K BEHERA

Eskuinak ez du batu: Navarra Suma orain 107.000 boto lortu ditu, Vox-eko 17.000ak gehituta 124.000 boto. 2016an 127.000 boto eskuratu zuen eskuin navarristak, beraz kontuan har- tuta partehartzea ia %9 igo dela, orain atzera egin du nabarmen. Hala ere, boto kopuru handia da. Azken 20 urteetan UPN eta enparauak 92.000 eta 139.000 boto artean dabilta, baina joera beheranzkoa da. Edozein modutan, oraingo emaitzetatik koxka bat jaitsita ere, erraz koka daitez- ke 90.000-100.000 boto artean. Orain, hala ere, Vox bere aldetik aurkezten da eta ikusi beharko da horrek nola eragiten dion UPNri. Logikoena litzateke horietako as- kok Navarra Suma babestea, “Fronte Popularrekoek eta inde- pendentistek” -hain hizkuntzan- Nafa- rroako Gobernua berriz eskura ez deza- ten. Ikusiko da.

Javier Esparzak badu kezkatuta egote- ko arrazoirik, baina gobernura iristeko bere arazorik handiena -soilik botoei erreparatuta- ez dira bere emaitzak,

PSNrenak baizik, eta hor zailtasun han- diagoak ditu. PSN azken bi hamarkade- tan 45.000 eta 91.000 boto artean ibi- li da, baina azken urteetan beherakada handiarekin: 2007ko hauteskunde fora- letan 74.000 boto, 2011koetan 51.000 eta 2015ean 45.000. Pentsa liteke orain jaso dituen boto asko maileguan utzi- takoak direla, eskuin neofrankistari au- rre egiteko; gaitza da irudikatzen orain horren behera jotzea,

“

“53.000 botok eraman zuten Barkos gobernuko lehendakaritzara, baina 2016ko abenduko orokorretan 14.000 boto lortu zituen eta orain 22.000”

baina emaitzen historiak erakusten du beti jaisten dela asko Espainiakoe- tatik Nafarroakoeta- ra. Oraingoan ez da hain samurra izango, PSOEK asmatu zuen boz hauek udal hau- teskundeak baino hi- labete lehenago dei- tzearekin, apirilekoen txanpak maiatzekoetan eragingo zuelakoan. Alde- rantziz ere izan zitekeen, bai- na jokaldia ongi atera zaionez, orain

Pedro Sanchezek du olatua alde, eta ikusteko dago zein neurritan lagunduko dion Maria Chiviteren hautagaitzari. Eta edozein kasutan, ez da samurra hemen Navarra Suma-PSN gobernua irudika- tzea, Madrilan labankadaka ari direnean.

Beste faktore batek ere alderdi hauen



INIIGO URIZ / FOKU

aurka egin ohi du: ohikoan hauteskunde orokorretan partehartzea handiagoa da eta emaitza hobek izaten dituzte; foraletan 4-5 puntu jaisten da partehartzea eta horrek alderdi abertzaleen alde egin ohi du. Hau da, herritar multzo baten zatik Nafarroako Legebiltzarra ez da Espainiako Legebiltzarra bezain garrantzitsua eta paso egiten du. Historikoki, PSN da idatzi bako arau horren alderdi kaltetuena.

PODEMOS ORAIN ERE GILTZARRI

Beste giltzetakoa Podemos eta Izquierda-Ezkerra dira. Askok jaitsita ere, orain oso emaitza ona lortu dute bien artean -Unidas Podemos-: 68.000 boto; baina banatuta joango dira maiatzaren 26an. Erabaki ulergaitza, ezkerreko zein alderdiaren ikuspegitik eta erabakigarria izan daitekeena. Oraingo emaitza zirkulara, alderdiaren indarren artean gobernuaren lehendakariak ere euren esku legoke aise. 2015ean Podemos izan zen alderdiak ahalbidetu zuen indar kabea eta orain ere hala gerta liteke. Podemosen zatiketaren beldur dira alderdiaren alderdiak, baina igandeko emaitzek esperantzaren atea zabal-zabalik uzten dute, besteak beste, ez dagoelako historiko bat adierazten duena boto hauek asko jaisten diren ala ez. Izatekotan, hauetako batzuk EH Bildura jo dezake-

tela pentsa liteke, baina ez da samurra hori ere, koalizio abertzalea bere orain arteko gorenetan dago eta.

EH BILDU POSIZIO ONEAN, GEROA BAI OSO ESTU

Alderdiaren alderdietatik Uxue Barkosen koalizioak du askatzeko korapilo gaitzena: 2015eko foru hauteskundeetako 53.000 botoek eraman zuten foru gobernuaren lehendakariatzara, baina 2016ko abenduko orokorretan 14.000 boto lortu zituen eta orain 22.000. Oso gutxi, kontuan hartuta 2011ko orokorrean 42.000 boto eta diputatu bat eman zizkietela. Alderdiaren indarrek, eta bereziki Geroa Baik, espero dute iragan igandeko emaitza asko aldatuko dela datorren 26an eta legealdian zehar Barkosen egindako kudeaketak boto asko emango dizkiela. Hori litzateke logikoa, eta desiragarria, baina egia esan, 31.000 boto gehiago behar ditu, gutxienez 2015eko foru hauteskundeetako emaitzak berdintzeko. Erronka aski gaitza, baina posiblea Uxue Barkosen historikoari begiratuta, bai Nafarroa Bain -61.000, 62.000 eta 77.000 boto- bai Geroa Bain -42.000 eta 53.000 boto- lortutako emaitzengatik.

EH Bildu askoz posizio hobean dago, 2016ko 31.000 botoetatik 46.000ra pasatu baita. Euskal Herritarrok-en

(1999) eta Amaiurren (2011) ondoren, ezker soberanistak izandako emaitzarik onenak dira. Bere hautesleria nahiko fidela da historikoki, nahiz eta 2011ko gailurretik gaurdaino ibilbide gorabeheratsua izan duen.

BESTELAKO ALDAKETARIK?

Alderdiaren alderdiak pozik agertu dira egindakoaz eta esperientzia errepikatuzeko desioa agertu dute. Baina ezin da bestelako alderdiarik baztertu, are gutxiago PSNren apirileko emaitza itzelen ondoren. PSNk behin baino gehiagotan adierazi du berak ikusten duela PSN eta Geroa Bai ardatz lukeen gobernu. Podemos eta Ezkerra ere eroso leudeke hor. Eta eroriko litzatekeena EH Bildu da, PSNren marra gorria baita. Hiru indar horien artean gehiengo osoa lortzea ere gaitza da ordea eta, beraz, eszenatoki honetan akaso EH Bilduri egokitu zaien erabakitzea edo UPN-PSN gobernu bat ahalbidetzen duen edo PSN-Geroa Bai-Podemos-Ezkerra gobernuaren sostengatzen duen legebiltzarretik. Eszenatoki gehiago ere posible dira, baina ate gehiegi irekitzea litzateke oraindik emaitzak eskuan izan gabe. Edozein kasutan gauza bakarra dago argi, 2015ean bezala, bihotzeko arazoak dituztenek kontuz ibili beharko dutela maiatzaren 26ko gauan. ●



SILVIA FEDERICI

“Geroz eta jende gehiago ari da ohartzen estatuak, kapitalismoak eta merkatuak ez dutela biziraupena bermatzen”



Apenas behar du aurkezpenik Silvia Federicik (Parma, Italia, 1942). Militante feminista, pentsamendu marxista eta feminista garaikideari egindako ekarpenengatik aski ezaguna da. Iruñean izan da Sorgin-ehizaren historiari buruzko I. topaketa feministan, eta bisita aprobetxatuz *Mundua berriz liluratuz: Feminismoa eta komunen politika* bere lanaz jardun dugu, Katakarak argialetxeak euskaratu berri duena. Kapitalismo basatiaren aurrean, feminismoa eta komunen politika proposatu ditu aterabidetzat.

 AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA
 JOSU SANTESTEBAN

Titulutik hasi eta amaieraraino, egungo gauzen ordena aldatzera dei egiten duen lana da honakoa. Baina gauzak argi uzte aldera: zer da zuretzat mundua berriz liluratzea?

Niretzat mundua berriz liluratzea da kapitalismoak ezberdindu dituen hainbat kontu berriz elkar lotzea. Bai jendarteari zein norbanakook naturarekin dugun harremanari begira.

Saiakerak komunen politikari buruz dihardu, oso garrantzitsua bilakatu den kontua delako, hainbat talde sozialen politikaren erdigune baita. Politika hori feminismoaz nola harremantzen den ere hartu dut hizpide, eta komunen aldeko feminismoaz jardun.

Komunen politika bueltan da. Zerk eragin du?

Politika neoliberalak masa pobretzea eragin dute, gehienbat emakumeoi eragiten diguna. Pobreziaren feminizazioaz, desjabetzaz, desplazamenduez edo migrazio olatuez hitz egiten da, besteak

beste. Praktikan, ondasun eta erlazio komunal guztienganako eraso bat ematen ari da, zeinaren ondorioz espazio komunitarioen gaineko kontzientzia garatu den, baita espazio publikoaren gainekoa ere. Geroz eta gehiago ari baita murrizten espazio publikoa, bizitzako aspektu orori eragiten dion pribatizazio bortitza tarteko. Behinola gure kontrolpean egondako bizi eremuak merkantilizatzen ari dira. Ondorioz, estatuak edo kapitalak gure biziraupena bermatzen ez dutenaren kontzientzia garatzen ari da. Uste dut horregatik datorrela bueltan komunen diskurtsoa.

Goraldia bizi badu ere, komunak diskurtsoak izan ditu joan-etorriak, mugimendu iraultzaileen erdigunean egoteari dagokionez.

Kurioso da: XIX. mendera arte komunak diskurtsoa oso oinarrizkoa zen mugimendu iraultzaileetan. Adibidez, XVI. eta XVII. mendeen bueltan, *Diggers* deiturikoak aurkitu ditzakegu:

lurrak okupatu eta landatzeari ekiten zion Ingalaterrako talde erradikal bat zen, lurraren pribatizazioari eta laborarien kanporatzeari aurre egin ziona. Frantziar iraultzaren osteko garaietan ere baziren komunak kontzeptua zerabilten iraultzaileak, lurra guztiona eta pribatizatu ezina zela aldarrikatu zutenak. Baina XIX. mendetik aurrera, eta industrializazioa tarteko, aldaketa bat eman zen. Komunak diskurtsoak oinarri izateari utzi zion trantsizio momentua antzeman nahirik nabil, honi buruz beste lan batean jardutea gustatuko bailitzaidake. Sozialismoaren, fabrikaren, iraultza industrialaren, proletargoaren eta marxismoaren garapen unean, komunak diskurtsoa desagertu egin zen. Honen arrastorik ez da soldatagatik edo lan jarduna zortzi ordura murriztearen aldeko borrokan. Diskurtso iraultzailea asko aldatzen da XVIII. mendetik XIX. menderako igarobidean, eta komunak diskurtsoa orain dator bueltan.

Bueltan dator, baina komunaren ikuskera berriak ari dira sortzen. Hau positiboa da zuk defendatzen duzunari begira: aldez aurretik pentsatutako eta zaharkitutako komun ideiez harago joan behar dugula.

Gaur eguneko komunan pentsatzen dugunean iraganera itzulera irudikatzeak ez dauka zentzurik. Iragana ez da errepikatuko. Gainera, ez dago komuna eredu unibertsal bat. Ereduak borrokaren bidez garatzen dira, borrokaren ondorio izan behar dira, eta adierazten digute zer den posible. Borroka esperimendazio prozesu bat ere bada.

Hainbat aspekturi begira, ezinbestekotzat dituzu komunak.

Komunen sorkuntza garrantzitsua da ez bakarrik bizirauteko, baita borrokarako eta erresistentziarako ere. Antolakun-

Politika neoliberalak masa pobretzea eragin dute, gehienbat emakumeoi eragiten diguna



tzarako lehenetsuna dira, harremanak eta produkzio ereduak aldatzeko gai diren antolakundeen sorrera ahalbidetu dezaketenak. Komunak eraikuntza indartu gaitzakeen bide ahaltsua da, elkaritasuna sortzea ahalbidetuz. Ez bakarrik bizidunekiko elkartasuna, baita hildakoenganakoa ere: historia berreskuratuz, gure borroka esperientzia testuinguru zabalagoan, zerbait handiagoan, kokatuz. Komuna iragana eta oroimen historikoa berreskuratzeko bidea ere izan baitaiteke, isolamendu individual zein historikoa ekidin diezagukena.

Komunak, zerbait izatekotan, harreman sozialak direla diozu.

Komunan pentsatzen dugunean ez dugu lur zati batean pentsatzen, baizik eta antolamendu sozialerako printzipio batean, sistema sozial batean, estatuaren eta merkatuaren oso bestelako logika batean. Komunak pentsatzean aberastasun naturala eta ekoiztutako aberastasuna nola elkarbanatu hausnartzen dugu, besteen bizitzekiko erantzule ginez eta indibidualismoa gaituz, eta erabakiak modu kolektiboan eta asanblearioki hartzeari bide emanez. Hori da niretzat komuna: Estatuaren eta merkatuaren oso bestelako logikaz antolatutako jendarte bat, zeinetan autogobernurako elementuen eraikuntzari ekiten zaion.

Antolamendurako asanblearismoan oinarritzen den jendarte baten aldekoa zara. Alabaina, kontsentsuarekin kritikoa ere bazara.

Kontsentsuak demokratikoa dirudien arren, sarri ez da hala. Adibidez, erreprodukzioarekiko harreman ezberdin batek abiatzen bagara, guztiok ezin gaitzeko hamar orduko eztabaidetan murgildu. Horregatik esaten da sarri, kontsentsuak aproposa dirudien arren, indartsuenari zaiola lagungarri: familiarekiko betebeharrak ez duenari, gau osoa eztabaidan eman dezakeenari. Garrantzitsua da kontu hauek guztiak mahaigaineratzea.

Komunen diskurtsoa are gehiago hedatuz joango dela baieztatu duzu.

Derrigorrean hedatuko dela iruditzen zait, geroz eta jende gehiago ari baita ohartzen estatuak, kapitalismoak eta merkatuak ez dutela biziraupena bermatzen. Krisi erreproduktibo ikaragarri baten ateetan gaudela ohartzen ari den era berean. Izan ere, etxetik kanpo lan egin, lana bukatutakoan merkatuan erosketak burutu, eta ostean garbiketa

lanetan eta sukaldean aritzearen logika ez da sostengarria. Aurrez sukaldatu-tako janaria erosi dezakegu, ados, baina haur bat izanez gero, zer egingo du merkatuak beronen biziraupena bermatzeko? Bestalde, aurrez prestatutako janaria aipatu dugula aprobeztatu: janari zatar eta merke horrek gorputza eta bizitza suntsitzen dizkigu, gaixotasun berriak azaleratzen dira, minbizi epidemiak kasu. Eta honekin ez naiz ari esaten bizitza aurrera atera ahal izateko aurrez prestatutako janaria erosten duen emakumea erruduna denik. Esaten ari naizena da erreproduzio moduz ezberdinak behar ditugula.

Emakumeak dira erreproduzio lan ez arduratu ohi direnak, lan indarra sortzeko oinarritzko egitekoa, eta hargatik, zure hitzetan, iraultzaren "zero puntua". Bere garaian, Soldatak Etxeko Lanentzat mugimenduko partaite izanik, erreproduzio lanentzako soldata aldarrikatu zenuen.

Ezbairik gabe, etxeko lanengatik soldataren aldarrikapena oso garrantzitsua izan zen 70eko hamarkadan. Mugimendu feministak indar handia zuen garai hartan, harreman berriak kontratatze-ko indarra zeukan: izan emakumeen artean, emakume eta gizonen artean, emakumeen eta kapitalaren artean, zein emakumeen eta estatuaren artean. Gure bizitzak aldatu zitzaizketen lorpenak egiteko indarra geneukan. Soldatapeko lanak lanaldi bikoitza dakar, kapitalismoari mesedegarri zaiona, sekulako aberastasuna ahalbidetzen baitio. Egun, emakumeen %80ak etxetik kanpo lan egiten du eta hala ere txiroenak, eta ondorioz beldurtuenak, beraiek dira. Hala bada, etxeko lanengatik soldata exijitzen dugu, nahiko da ordaindu gabeko lanak egiteaz. Kapitalismoa egiten ari garen lanak ordaintzera derrigortzen dugu. Ez emakume izateagatik, baizik eta gizonak egiten ez dituzten lanak ordainetzen.

Gaur egun, gatazkak bere horretan dirau. Postura berbera mantentzen duzu?

Batetik, baliabideen problematika dago. Jendeak lan eta lan dihardu, eta lan esparruaz kanpoko beharrezko lanetan irabazten duenarekin erosi behar du derrigor: baita haur eta nagusiak zainduko dituen pertsona bat ere. AEBetan emakume askok bi lan dituzte, eta zorpetu egiten dira hala ere, hilabete amaiera hartzeko zailtasunak medio. Halako

egoeretan, baliabideak eskuratzeari dagokionez gatazka sortzen da.

Bestetik, lanen berrantolaketaren problematika dugu. Hortxe dago lanak gizonekin elkarbanatzearen aukera, baina zer gertatzen da ez badugu ondoan gizon bat? Bakarrik bizi bagara? Edo beste emakume batekin? Noski gizonak lanak emakumeekin elkarbanatu behar dituztela, baina hori ez da konponbidea. Gakoak antolatze modu komunitario eta kolektiboagoan datza. Erreproduzio modu komunitarioagoak sortzeko sare soziala sendotzen du, baita emakumeen arteko harremanak ere. Are gehiago, estatuari aurre egiteko botere gehiago eta aberastasunaren birjabetzarako modu gehiago ahalbidetzen ditu. Hori da nire gaur eguneko postura.

Komunaren eredu berri bat eraikitzeari begira, lan erreproduktibo berregituraketak oinarritzko egitekoa behar luke. Zure iritziz, emakumeek egin beharreko lana da.

Emakumeak izan behar dira lan hori egiten dutenak, emakumeak direlako albo kalte gehienak pairatzen dituztenak. Gizonak ez dira lan horretaz arduratuko. Ezagutzen duzu haurren haziera berregituratzeaz arduratzen den gizon talderik? Beren programa sozialaren baitan haurtzaindagei buruzko eztabaida txertatzen duenik? Bada, ez. Horregatik, lan hori gizonak egiteko zain bagaude, hil gaitezke. Gainera, nik uste emakumeak baduela belaunaldiz belaunaldi jasotako esperientzia. Trebatuenak eta interesatuenak gara. Honek ez du esan nahi gizonak berregituraketa prozesuan parte hartu ezin dutenik, baina erabakitzeko ahalmenak emakumeena behar luke.

Marx-ek metatze primitibo deitu zuena indarrean da gaur egun ere, komunaren diskurtsoaren itzulera testuinguruan presente. Gainera, globalizazioarekin eta neoliberalismoarekin, normalizatu ez ezik muturrera eramanez diozu. Zein aspektutan antzeman dezakegu?

Egun metatze primitiboak hitz egiten da kapitalismoaren azken fasera mugaturiko zerbait ez zela izan adierazteko. Hortxe dirau, eta une erabakigarrietan ematen da, atzera-egite uneetan, kapitala bere oinarriak berreraikitzen derrigortzen duten krisialdietan. Egungoa kapitalismo basatia da, zeina moduz ezberdinetako desjabetzeaz baliatzen ari den. Lurraren desjabetzea ematen ari da.

Berriz ari dira gertatzen masa desplazamendu ikaragarriak. Erabateko desjabetze batez ari gara, milioika norbanako egoera guztiz zaurgarrietan lan merkatura bideratzen dituenak, eta produkzio merkatuaren mendeko bilakatzen gaituena, derrigorrean. Hala bada, desjabetu egiten gaituzte, merkatuarekiko geroz eta menpekoago bilakatuz. Horrek esan nahi du geroz eta diru gehiago irabazi beharrean aurkituko garela bizitza sostengatzeko, eta esklabutza egoerak sortzen ditu, pobretze kondizioak. Guzti honengatik hitz egiten dugu gehienbat emakumeak kaltetzen dituen metatze primitiboaren itzulera.

Hori da niretzat komuna: Estatuaren eta merkatuaren oso bestelako logikaz antolatutako jendarte bat, zeinetan autogobernurako elementuen eraikuntzari ekiten zaion



Metatze primitiboak hainbat modutara kaltetzen ditu emakumeak, lurren desjabetze bidez, kasu. Horren adierazle, munduko hainbat tokitan emakumeak gehiengo dira lurraren desjabetzaren kontrako borrokan lehen lerroan. Itsasoz bestaldeko kide hauek erresistentzia eredu berriak ari zaizkigu aditzera ematen?

Bai, noski. Gaur egun, iraganean bezala, hainbat tokitan emakumeak dira komunak sortu, defendatu eta lurra babesteko borrokan buru. Ohartzen baitira behin lurra kutsatutakoan komunitatea osorik galtzen dela, petrolio-konpainia batek esku hartzen duenean, adibidez: laborantzan jarratzea eragozten du, bertan bizitzea galarazi. Bestetik, txirotzearekin eta jendartearen urbanizatzearekin, komuna berriak sortzen ari dira. Jendea landa eremutik hirira kanporatzeak kolektiboak diren erreproduzio modu berriak sortu ditu: jantoki herrikoiak, hiri baratzak, ... sare komunitario oso bat sortzen dutenak. Liburuan hizpide ditut Hego Ameriketako zein Afrikako emakumeak, hiriguneetan espazio publikoa okupatzen dihardutenak, lur horretan erein eta bertatik uzta jasotzeari ekin diotenak. Feno-



meno berria da, hiria eta landagunearen arteko bereizketa ezabatzen duena. Hala bada, interesgarria da adibideoi erreparatzea, antzemateko nola indartzen duten bai erresistentzia zein estatuari aurre egiteko gaitasuna, nola ahalbidetzen duten zaurgarritasun egoeratik indar gehiagoko posizio bat hartzera igarotzea. Dagoena defendatzeko balio die, baita birjabetze prozesuak antolatzeke ere.

Elkarren artean batu, antolatu eta komunitatean bizitzearen aldeko ideia hedatzen ari bada ere, bidean oztupo handi bat identifikatu duzu: teknologiarekiko erakarpena.

Gatazka daukat teknologia digitalarekin zerikusia duen oro ospatzen duen ikuskerarekin, mugikorra, iPad-a eta antzerakoak komunitate eraikitzaile gisara ulertzeko joerarekin. Berez ez

dira hain eraikitzaileak, izatez harreman sozialak indibidualistagoak bilakatu ari dira, elkarrengandik urruntzen gaituzte. Gaiarekin loturan, oso garrantzitsua den beste aspektu bati erreparatu behar zaio: tenologia horren ekoizpenak ondasun komunal asko eta asko suntsitzen ditu, baliabide naturalen suntsiketa baitago ekoizpenaren oina-

Noski gizonek lanak emakumeekin elkarbanatu behar dituztela, baina hori ez da konponbidea



rrian. Honetaz ozen hitz egiten ez bada ere, teknologia berri hauek lan esklabuz ekoizten dira, babesgabetsun bortitza bizi duten langileen eskulanaz. Odol asko isurtzen da aparailu teknologiko hauen ekoizpen prozesuan. Nola, bada, ospatu dezakegu teknologia hauen erabilera? Birpentsatu beharko genuke zeri deitzen diogun aberastasuna, zer den balioa eta zeri ematen diogun. ●



Kalean da maiatzeko

aizu!

- Artsakh Errepublikan barrena
- Bizitzarako Margoak Andetxean ikusgai
- 21. Korrika argakiz argakiz
- Paula Estevez arin-arin
- Xenofobiaren aurkako besarkadak

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**
aizu.eus

Urbasako jauregia gorriak ikusten ari da



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Urbasa mendilerroa (Nafarroa), 1699. Fernando Ramirez Bakedano Andiaiko markesaren aginduz jauregi bat eraikitzen hasi ziren toki bakartu hartan, eta lanak sei urte geroago amaitu zituzten. Agindua, berez, goragotik etorri zen; Espainiako Erresumako fiskalak erabaki zuen han jauregi bat eta kartzela bat behar zirela, Errege Kontseiluko Auzitegiari jakinarazi zion erabakia eta hark markesari eman zion agindua, markesaren eskutan baitzegoen Urbasa-Andiaiko jurisdikzio zibil eta kriminala.

Andiaiko markesak ez zuen ziurrenik horren beharrik ikusiko eta, hala, bakedanotarrek ez zuten sekula etxetzar bakartua bizileku izan, bi mendetan jabetza markesarena izan arren. Buruhaustek eman zizkien, hala ere; mende erdia bete baino lehen, eraikina erortzeko zorian zegoela eta, berritze lanak egin behar izan zituzten.

Markesaren etxezainak eta bertako kapilaua besterik ez ziren bertan bizi izan. Inguruko artzainek, abeltzainek eta bertatik pasatzen zirenek, behintzat, aterpe gisa aprobetxatu zuten luzaroan.

1915ean egurraren sektorean jarduten zuen Etxabarri enpresari olatzagutiarrak erosi zuen, eta ostatu bihurtu. 1976an itxi zuten ostatua eta, orduz geroztik, eraikina utzita eta egoera geroz eta kaxkarragoan dago, 1990etik Nafarroako Gobernuaren esku egon arren.



INDALECIO OJANGUREN

URBASAKO JAUREGIA OSTATU IZAN ZEN ETXEBERRI ENPRESARIAK 1915EAN EROSI ETA GERO.

Horregatik, Espainiako Estatuko kultura eta natura ondarea babesteaz arduratzen den Hispania Nostra erakundeak bere Zerrenda Gorrian sartu du Urbasako jauregia, ondare hori galtzeko arriskuan dagoela salatzen. Orotara, zerrenda horretan Hego Euskal Herriko 38 gune eta eraikin daude une honetan, besteak beste, Donostiako Bellas Artes antzokia, Barakaldoko Zubileta dorretxea, Toloñoko Andre Mariaren monasterioa, Orbaizetako arma ola... Baina, zorionez, puntu gorritz jositako mapa

horretan, tarteka, puntu berdeak ageri dira, garai batean zerrenda gorrian egondako ondarea berritu eta egun arriskuz kanpo eta egoera onean dagoen seinale. Horietako bat Urbasatik oso gertu dago, Eulaten. Alvareztarren armategi kabo jauregia da, eraikin errenazentista, Gerra Karlistetan, 1835ean, Córdoba jeneralak suntsitua. Bi dorre eta fatxadatko bat zutik zeuden oraindik, baina egoera tamalgarrian, 2010ean Eulateko Udalak sasitza garbitu eta editurak finkatu zituen arte. ●



2.000 urteko urdin bizia

Argazkiko arrastoak Kortsikako etruriar eta erromatar garaiko (K.a. V. mendea - K.o. III. mendea) nekropoli batean aurkitu dituzte eta, beraz, 2.000 urte inguru dituzte, baina inkongruentzia bat dute, itxuraz; objektu urdin horrek askoz berriagoa dirudi, plastikozko botila baten tapoia-edo. Bada giza arrastoen eta aho inguruko

txanponaren garai berekoa da. Kristal urdinez egindako baltsamo-ontzi bat da, barruan ziurrenik lurrina gordetzen zuena, eta emakume buru forma dauka.

Ontzitzo urdina ez da izan ezusteko bakarra, nekropolia bera ezustean aurkitu dute eta agerian utzi berri dituzte industeke dagoen hilobi sakonago batera daramaten eskilarak. ●

LANDAREAK ESAKA

Malba arrunta edo ziguina (*Malva Sylvestris*) ikusten dugun tokian lurra oso ona izango da, aberatsa eta emankorra.



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Landareek bereziki maite dituzte toki jakin batzuk. Geure gisara, landare bakoitza bat eta bakarra da. Bakoitza horrek bere apetak eta zaletasunak ditu. Zaletasun horiek, aurretik dituen bizitzeko nahitaezko baldintzen atzetik datoz.

Landarearen genetikak hagintzen du. Batzuk sustriak uretan izatera ohitu ziren, beste batzuk izotzak izenik ere ez duen tokietara, baten bat itsasoko gatzak dena erretzen duen hareatzetara jarri zen... Orain bizi diren haien ondorengoek toki horiek behar dituzte. Behar beharrezko, edo ez hain beharrezko.

Landarea bakarra izanagatik, ez da bakarrik bizi. Sortu zuen hazia non ernatu zenaren arabera ingurune jakin bat topatuko du. Baldintza jakinekin eta



WIKIPEDIA

landaredi jakinarekin. Landaredi horretan borroka izugarria biziko da: nork lurra hartu, nork ura bereganatu, nork eguzkiaren edo itzalaren tarte okupatu. Baldintza jakin horietara ohituta dagoena, ondoen eta azkarren egokitzen dena gailenduko da.

Landare bakoitzaren egokitze gaitasun hori, alderantzizko bidea egiteko erabiliko dugu guk. Landare bat non topatzen dugunaren arabera jakingo dugu toki horrek baldintza jakin batzuk dituela. Zertarako? Ba geuk jarri nahi dugun beste landare batentzako bizitoki egokia edo jasangaitza izango den jabetzeko. Adibidez, ahabia, *Vaccinium myrtillus*, ekoizten hasi nahi dut eta badakit nahitaezkoa duela lur azidoa. Txilarrak eta ainarra (*Erica spp.* eta *Calluna sp.*) ikus-

ten ditugun tokia oso ona izango da, azidozale amorratuak baitira.

Landare adierazlea esaten zaio. Hura non ikusi, toki hori, lur hori halakoa da. Ardibidez, sapelarra edo txabarkoia edo sapa belarra (*Stellaria media*) edo malba arrunta edo ziguina (*Malva sylvestris*) ikusten dugun tokian lurra oso ona izango da, aberatsa eta emankorra. Azeri-buztana edo luki-buztana edo eztainu-belarra edo azagaru-buztana (*Equisetum spp.*) ikusten badugu, lur itoa eta desegituratua, oso emankorra behintzat ez dela adieraziko digu. Antzekoa esaten ari zaizkigu ihia (*Juncus spp.*) eta larranbiloa edo kamamila (*Matricaria chamomilla*).

Esaten ari zaizkigu, beraz ikusi, entzun eta antzeman, aditu. ●

BADATOZ IRUÑEKO ESKOLA BARATZEEN LEHEN TOPAKETAK



GARAZI
ZABALETA



Maiatzaren 16an Iruñeko Ingurumen Heziketarako Museoa egingen dituzte hiriburuko eskola baratzeen arteko lehen topaketak. Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasle nahiz ikasleei zuzenduta dago ekimena, eta eskola baratzeen udal programako parte diren ikastetxeei ez ezik, Iruñerriko nahiz kanpoko beste eskolei ere zabaldu die te gonbidapena. “Ekimen xumea izan da, horrelako zerbait antolatzen dugun lehen aldia baita”, azaldu du Gurutze Santxo Iruñeko Ingurumen Heziketarako lantaldeko teknikariak.

BESTEEN ESPERIENTZIALTIK IKASIZ

“Iruñeko eskola baratzeen proiektuak bigarren ikasturtea egin duela-eta, garrantzitsua iruditzen zitzaigun ikastetxe horientzat nahiz proiektutik kanpokoentzat esperientziak trukatzeko gunea irekitzea”, dio Santxok. Topaketen helburu nagusia

da batzuen eta besteen bizipenetatik ikasten joatea eta ideiak biltzea. Ikasleek eta irakasleek talde berezietan egingen dute lan dinamikaren hasieran, ondoren ateratako ideiak guztien artean partekatuzko.

“Aberasgarria da beste ikastetxe batean zertan ari diren ezagutzea, zerk funtzionatzen duen edota zein zailtasun izan dituzten”, azaldu du teknikariak. Izan ere, eskola baratzeek haurren ikasketa prozesuari ekarpen handia egiten diotela konbentzituruta daude proiektuaren bultzatzaileak, baina sarritan baratzeak eskolan ematen dituen aukera guztiak ez direla ezagutzen ezta aprobetxatzen uste dute. Aukera zabal horietan sakontzea dute erronka, baratzeoi zukua ateratzeko.

UDALETIK BULTZATUTAKO PROGRAMA

Iaz jarri zuten martxan Iruñeko eskola baratzeen programa. Lehenagotik ere hiri-

ko zenbait ikastetxek baratzeak martxan eduki arren, Udalak eskola berriei eskaintza egin zien orduan: bi ikastetxerekin esperientzi pilotua jarri zuten martxan iaz, eta arrakasta ikusita, aurtengo ikasturterako deialdia zabaldu eta beste lau ikastetxe batu dira proiektura: Errotxapeako eta Sanduzelako ikastetxe publikoak izan ziren lehenengo biak, eta Doña Mayor, García Galdeano, Mendillorri eta Mendigoitokoak ondoren sartu direnak.

Eskola baratzeak ingurumen heziketa haurrekin lantzeko baliabide direla dio Santxok: naturarekin esperientzia positiboa izatea da eman beharreko lehen pausoa. Horrez gain, eduki asko lantzeko aukera ematen du baratzeak: biologia, matematika, hizkuntzak... “Gainera, kontuan izanda ikastetxe askotan patio guztia hormigoizkoa dela, baratzeok badira ikastetxeak atseginagoak egiteko modu bat ere”, gehitu du. ●

Basherri

GIPUZKOAKO KONTSUMO TALDE ETA KOOPERATIBAK

info@basherrisarea.eus · www.basherrisarea.eus

sarea

HEMENGOA ETA EKOLOGIKOA, GOZATU GUREAZ!



1977ko martxoaren 13a



KOLDO IZAGIRRE

Aurreko batean, gure ekonomatu txikitxora hurbildu nintzenez, bazekitela esan zidaan kaiolari batek, bazekitela jaleoa izango zutela gaur ate nagusiaren aurrean. Ez zutela inolako jaleorik edukiko esan nioan, guardiazibilek ez zietelako arrimatzen utziko, errepidetik ari beharko zutela buila pixka bat ateratzen. Eta halaxe gertatu duk zorionez, tirorik gabe. Altabozekoa ez diagu ondo entzun gure patiotik, xerra prejitzen ari balira bezalako zarata ateratzen zian, seguru ez dutela konprobatu munizioa ondo zeukan. Horretarako sindikalistak izaten zarete onenak, zuek pila berriak ipintzen dizkiezue beti altabozei manifestaziora ateratzen zaretenean. Gero betiko oihuak, presoak, amnistia... Eta Telesforo Monzonen kantua, Kalera kalera borrokalari kalera, hire indarraren beharra diagu gure indarrarekin batera, zain dago ama zain aita zain andre eta lagunak... Amaitu dutenean Eusko Gudariak kantatu diagu guk ere, hirugarren patiotik gizonezkoek bezala. Orain kartzelaren albo batera etorriko dituk manifestariak beren pankartekin, poligono industrialean zehar, semeek, anaiek eta senarrek hagen artetik egiten dizkieten diosalak ikusteko. Hezetasun handia zagok patio honetan, barrura noak. Gure ziegetatik ez zagok inor ikusterik, mendi puska batzuk besterik ez. Dena duk benetako borrokalariantzat, ziegari onenak, ekonomatu hornituak, senideak, kantuak... Amnistia oraindik ere luzatu litekeenez, ba, bisitan etorriko bahintz poz handia. ●

ARGAZKI NOBELAK 1981-1982AN

Goenkaleren aurrekaria ote?



ARGIAKO ARGAZKI ARTXIBOA

Zu ere itzuliko zara argazki-nobelaren lehen kapitulu. Ondoa, egileek elkarrekin Donostiako Bulebarrean atera zuten argazkia, 1981ean: zutik Mikel Antza, Iñaki Urija eta Patxi Santamaria eta eserita Josu Landa eta Luis Otaegi (argazkilaria).

MIREN OSA GALDONA

Argazki-nobela batekin egin zuten topo ARGIAko irakurleek 1981ko irailetik aurrera. *Azkenean zu ere bueltatuko zara* zuen izenburua eta astero kapitulu bat ikus zitekeen, astekariko orri batean.

Irakurle gazteontzat literatur genero ezezaguna izan daiteke argazki-nobela, egun ez baita ohikoa halako piezak kale-ratzea. Irudi errealistez osatutako komikia da funtsean argazki-nobela, ohiko bineta eta bunbuiloekin. Ez zen lan makala izango hori egitea, eta lantalde zabal bat elkartu zen: aktore nagusiak Maite Sagarzazu eta Eneko Olasagasti izan ziren; argazkiak Luis Otaegik egin zituen; eta gidoigile, zuzendari eta erre realizazio lanetan Mikel Antza, Josu Landa eta Iñaki Urija aritu ziren.

1981ko iraileko lehen argitalpen hura eskuarte hartuta, argazki-nobelak bikote herterosexual baten ohiko maitasun istorio erromantikoa jorratuko duen kontakizun klasikoa dela pentsa daiteke: elkarri begietara begira ageri dira bi aktore nagusiak, mutilak neskarri gerritik heltzen dion bitartean. Ane eta Xabierren gorabeherak kontatu zizkieten irakurleei lehen argitalpenean.

Aurreragoko zenbakietan pertsonaiak aldatu egin ziren, aste bakoitzeko argazki-nobela besteengandik independentea baizen. Arestian aipatutako maitasun istorioek, baina, bazituzten bigarren maila batean lantzen ziren zenbait mezu: bakardadea, independentzia eta lagun arteko harremanak kasu. Betiko estereotipo eta estructure-tatik ihes egiteko ahaleginean, besteak beste, Simone de Beauvoirren aipuak jarri izana ere esanguratsua da.

Moraleja bitxi batekin eman zioten amaiera hamasei kapituluko argazki-nobelaren abenturari 1982ko irailean, ordura arteko guztia argazki-nobelaren parodia izan zela nabarmen agerian jarritz: "etxetik nahiz nobioagandik aldegindako guztiok, lehenbailen buelta zaitzte! Azkenean zu ere bueltatuko baitzara...". Hurrengo astean irakurleengandik jasotako iruzkinen bilduma ganberroa atera zuten eta bigarren argazki-nobela bat hasiko zela iragari: *Esnatzearen burruka luzea*.

Geroztik ez da argazki-nobelarik itzuli irakurleon eskuartera. Argiatarrak, zeren zain zaudete berriz halako pieza bati heltzeko? ●

Multimedian dago gakoa

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Banuen gogo lagun honi ongi-eto-rrria emateko. Orain urte batzuk egin genuen topo beste proiektu batean, eta aurretik elkar ezagutzen bagenuen ere, hilabete horietan egin ginen lagun. Eneritz Arzallus, poza eman dit zure izena ARGIAko lantaldean entzuteak. Eta zuri, irakurle, ezaguna egiten al zaizu? Urtariletik dabil lanean ikus-entzunezkoen arloan eta urtebeterako etorri da.

“Multimedia arloa indartzea da asmoa. Bideo atalari heldu diot nik, eta denetik egiten dugu”, egin dit sarrera Arzallusek. Alde batetik ARGIAren mendeurrena dago, horren baitan antolatzen ari diren ekitaldi, irteera, ekintza guztiak bideoan biltzen ari baitira, ondoren laburpen txikiak argitaratzeko. “Horretan ez da lanik falta, ospakizunean gaude!”, esan dit alai. Baina aktualitateak ematen dituen gaiak ikus-entzunezko euskarrietan, dosi txikietan sare sozialen bidez zabaltzeko indarra ere jarri nahi du ARGIAk, hori da apustua, eta lan horietan ere ari da lan-kide berria. Eta ez hori bakarrik, aldizkari-ko edukiei ere plus bat emateko bideo laburrak egiten ari da. Ikusi duzu Gladys del Estalen inguruan egindako *Larrunarekin* batera prestatutako bideoa? Edo azkena, Wikileaks-en aferaren inguruan atera berri dutena? Orain badakizu atzean noren lana dagoen, irakurle.

Ia egunero bideoen bat argitaratzeko helburua jarri dute. Bizimoduaren abiadura geroz eta azkarragoa da eta goranzko joera dute bideo laburrek. ARGIAk ez du atzean geratu nahi aktualitatearen jarraipenean, nahiz eta ez duen horretan soilik geratzeko asmorik. Aspekariak aktualitatea sakon eta lasaiago



Eneritz Arzallus eta Amaia Fernandez, begia zorrotz.

jarraitzeko ematen duen aukera aprobe-txatu eta honi ikus-entzunezko landua-goak gehitzeko apustua egin dute. Hauek dira Eneritz Arzallusek gehien maite dituen lanak: berak gustuko duen gaia hartu, aztertu, landu, eta mimoz egindako bideoak. Eguneroko abiadurak eskatzen dituen bideo azkar horiek, “egin behar-rekoak direnak”, onartzen du, dira gu-txien gustatzen zaizkionak.

Talde-lanean gustura aritzen da, eta orain praktikaldia egiten ari den Amaia Fernandezekin ere oso pozik dago, biak aritzen baitira multi-mediako lanetan. Emakumeon Mundu Martxako Nazioarteko Topaketetako komunikazio arduradun izanak ondotoxo daki herrigintzan lan egiten, mai-tasunez eta mimoz lan egiten. Eta hori emaitzan nabari da. ●

DANI BLANCO

AZOKA
AZOKA.ARGIA.EUS

**NOLA DA
MUSUTRUK?**

Ostegunetan 10:00etan jartzen ditugu *Argia Jendea*-ren-tzat musutruk dauden gaiak eta zozketarik gabe, bizkorren eramaten dituenarentzat dira. Ondasunak banatu ditza-gun, urtean musutruk gai bat hartzea eskatzen da.



EHZ FESTIBALERAKO SARRERAK

Ekainaren 28, 29 eta 30ean
MUSUTRUK JARRIKO DEN EGUNA:
Maiatzak 16, osteguna, 10:00etan



Norbera bere norberarengana hurbilarazi nahi izan dut, ez disko intimo bat egin”

MAITE LARBURU, MUSIKARIA

“Inor ez omen da profeta bere herrian, baina ezta behar ere”.

Hala hasi du Maite Larburuk bere izen-abizenez argitaratutako lehen diskoa (*Hezurren azpian*, Gaztelupeko hotsak) Hernanin aurkezteko kontzertua. Bere baitan dituen bi musikariak gerturatu ditu lan berriarekin: ogibide duen biolina gehitu dio Neighborrekin hasitako kantugile bideari. Egun batzuk lehenago, aretotik ehun metro eskasera elkartu ginen harekin solaserako: diskoaz, distantziez, hezurren azpian denaz...

LANDER ARRETXEKA BEREZIARTUA
DANI BLANCO

Lanagatik etengabe bidaiatzen dutenak badirela entzun, eta komertzialak edo enpresaburuak etortzen zaizkigu kaskora. Kasu berezia da zurea.

Nik nire ingurukoei esaten diet galdera errazak ez egiteko, horiek direlako niretzat erantzuten zailenak. Bolada batez non bizi nintzen galdetzen zidatenean ez nekien erantzuten ere. Nire lanbidea azaltzeko modu sinpleena da autonomia naizela esatea, kontratatzen nautela antzinako musikaren zirkuitoan lan egiten duten talde desberdinek, eta talde horiek Europa erdialdean mugitzen direla. Kontratazio horien arabera antolatzen dut nire agenda. Eta gero, bestalde, kantik sortzen ditut, lehen Neighbor izenpean zabaltzeko, Maite Larburu izenarekin zabaltzeko orain. Esan daiteke antzinako musika talde horiek Maite Larburu eta Neighborren babesleak direla.

Nomada zara musikaren aitzakian. Baina neurri batean, badirudi Neighbor eta disko honetan egindako bidea izan direla Euskal Herrira itzularazi zaituztenak.

Nik ez nuen Euskal Herrira itzuli nahi. Amsterdamen gure etxea zena bota zuten, Neighbor sortu genuen, nire musikari bi-

dea hemengo errealitatearekin lotu zen... Baina hala ere, ez nuen itzuli nahi. Eta hala ere, itzuli naiz. Ze gauza absurdoa. Zer da gauzak erabakitzen dituen? Burua? Edo gorputzak erabakitzen du eta burua gero saiatzen da esplikazio bat ematen? Polita da, baina batez ere, harrigarria. Hiru diskoek begira jarrita, *Ura patrikan* sortu zen Amsterdamen, Josh Cheatman nire bizilaguna zenean. Bigarren diskoa sortu genuenerako, mundu hori hautsia zen, eta beraz, Amsterdam eta Hernani artean egindakoa da, mudantza disko bat, tartekoa. *Hezurren azpian* aldiz, itzulerako diskoa da.

Erraza al da zure bi alde horiek uztartzea, antzinako musika jotzen duena eta kantugilea?

Nik uste batak besteari asko zor diola. Bi aldeak nigan daude, eta batetik bestera egiten dut salto. Batzuetan, ezjakintasunak ematen dizun ausardiarekin egiten da salto hori. Ez nuke esango antzinako musikan sekulako ezagutza dudarik. Baina ezagutzen dut, horretara dedikatu naizelako. Sorkuntzaren munduan ez dut hainbesteko ezagutzerik, eta horretarako ausardia puntu bat behar da. Oso desberdinak dira, egia da, baina musika musika da, eta nire baitan behintzat, batak bestea elikatzen du.

Entzun dizut, neurri batean, antzinako musika jotzen duen Maite Larburu hori presenteago dagoela disko honetan Neighborren baino.

Bai, baina ez diskoak antzinako musikaren estetika duelako, biolina hartu dudalako baizik. *Hezurren azpian* hau Maite Larburu izenarekin atera dut baina azken finean Neighborren jarraipena da. Josh Cheatman ez dago, baina bai beregandik ikasi dudana. Bere gitarrak ere bai, grabatzeko erabili ditudalako. Neighborren munduan biolina sartzea asko kostatzen zitzaidan. Ez nekien zer egin. Orain aldiz, errazagoa egin zait pauso hori ematea. Baina beste instrumentuak behar ditut, batez ere ez ditudalako ezagutzen, eta horrek ematen didalako espero ez nuen tokietara joateko aukera. Boliinak ere, nahiz eta ondo eza-gutu, harritu egin nau prozesu honetan, eta ederra izan da hori.

Antzinako musika jotzen ari zarenean, taldeko kide bat gehiago zara. Neighborren bikote baten erdia. Orain aldiz zure izen-abizenekin kaleratu duzu diskoa. Zama suagoa da ardura?

Antzinako musika jotzean hilda dagoen norbaitek konposatutakoa ari zara jo-



tzen, eta nahiz eta inguruan aditu asko izan, ardura ere txikiagoa da. Maite Larburu izenarekin ari naizenean lehen leerroan nago, eta abestiak nireak dira. Hitzak ere bai. Pertsonalagoa da, baina hala ere, nik ez dut gauza intimoago bat egin nahi izan. Nik kanta horiek egiten ditut entzulea norberarengana hurbil dadin. Norbera bere norbera horrengana. Ni naiz aktorea, sortzailea eta interpretea, eta normala da nahasgarria izatea, baina ez naiz ni kantetako protagonista.

Euskal musikaren historia garai-kidea adibidez josita dago: hanka bat kanpoan izan duten musikariek atzerrian ikusi eta ikasitakoak ekarri dituzte gero hona. Zuri ere asko eragin dizu Europa erdialdean ezagututakoak?

Ez dakit hemen influentzia bihurtu diren edo bihurtuko diren, baina ikasi ditudan gauza asko ekarri ditut. Gehienbat lankideengandik ikasia: lankide musikari zoragarriak ditut munduan

zehar barreiatuta. Nik nituen komplexuen gainetik salto egiten irakatsi didate, pare batek bereziki, oso-oso ekarpen handia eginez. Badira hegoak dituzten pertsonak, eta haiekin zaudenean lumak kutsatu egiten zaizkizu. Beti pentsatzen dut, “ai, ea irauten duten”. Elkar kutsatzen dugu, nork beretik dakarrena emanez. Hori badago diskoan, baina ez da izan han edo hemen ikusi dudana talde edo kontzertu batean aurkitutakoa, musika elkarrekin eginez ikasi dudana baizik, buruz buru.

Perkusioak diskoan duen papera esanguratsua da. Ez-ohiko instrumentuekin, giro oso bereziak sortu dituzue.

Historia luzea da. Nagore Legarreta argazkilariari eskatu nion argazki batzuk egiteko diskorako, eta berak argazkiak egin ahala, bere proiektuetako baten berri eman zidan. *Hysteron* zuen izena; eta Nagorek argazkiak latekin egiten dituenek, Beñat Iturriotz eta Aida Torresek ere lata kolekzio batekin jarri zioten soinu-banda proiektuari. Ideia jeniala iruditu zitzaidan, eta pentsatu nuen *Hezurren azpian* zerbait oso gertukoa zenez, latak eta kazuelak soinu egokia zirela. Uste dut asmatu dugula. Ez da oso formazio ohikoa zuzenkorako, eta agian horrek baditu bere mugak ere, baina oso polita izan da haiek ezagutzea. *Hezurren azpian* izan zen disko honetarako egin nuen lehen abestia, baina Aida eta Beñat ezagutu nitueanean, dena aldatzea erabaki nuen. Letra berarekin, kanta berria sortu nuen haientzat.



Txikia dena oso garrantzitsua da niretzat, ikara handia sortu izan dit handitasunak beti

Letretara etorrira, baduzu joera hitzak ere musika tresna gisa erabiltzekoa, ahoskerarekin asko jokatzen duzu, ez soilik esanahiekin. Hizkuntza bakoitzak bere doinua du, bere ahoskera, bere tonua... Ikasi du-



dan zerbait izango da ziur asko, besteak beste Harkaitz Canorekin. Bereak dira letra batzuk. Hitzak berrasmatu egiten ditu, esanahi berriak eman. Egia esan, beti gustatu izan zait idaztea, nahiz eta ez ausartu inoiz ezer publiko egitera. Asko gustatzen zait, niretzat bada ere. Neighborrekin ikasi nuen nuen nire idazketen lekua kanta zela, eta orain jarraitu dut horrekin.

Noizbait jakingo dugu nola egiten duen Canok hainbeste gauza aldi berean eta fin egiteko.

Aspaldi ezagutu nuen, 15 bat urte bituela-edo. Korrika Kulturala antolatzen, nire ahizpak AEKn egiten zuen lan, eta hainbat musikari elkartu ginen zerbait egiteko. Baten batek esan zuen idazle bat ezagutzen zuela, eta harekin osatu genuen emanaldia. Denezte egin genituen gainera. Gero, bigarren diskoan, eskatu nion zerbait, baina azkenean ez nuen diskoan sartu. Eta oraingoan bai, denbora izan du niri eskaintzeko. Gaitasun asko du eta asko zukutzen dugu guk, baina nik ere ez dakit nola egiten duen. Berak ere bizitza bakarra du.

Abesti hauetan, baina baita Neighborren ere, badira asko errepikatzen diren hitz batzuk: maletak, harriak, haizea...

Nork bere mundua du eta mundua adierazteko bidea. Nirean distantziak, joan-etorriak edo lekuz kanpo sentitzea asko errepikatzen dira... Elementu horiek bazeuden Neighborren eta badaude orain. Distantziarena bereziki. Beti izan da nire bizitzan elementu oso garrantzitsu bat: min asko eman dit, baina askatasun asko ere bai. Bi puntu nola gurutzatu, nola elkartu, horren bueltan hausnartzen hasita konturatu naiz distantzia askotan buruan dagoela, gauza asko direla nigandik niregana edo nigandik besteengana distantzia jartzen dutenak. Eta neurri batean, hezurren azpian dagoen horrek gerturazten gaitu.

Zer dago, bada, hezurren azpian?

Galdera ona da, baina nik ere ez dakit. Ni nago, baina ez ni, Maite Larburu. Nainen zerbait, baina ez ni bakarrik: izatea, nirea eta zurea. Eta ez dago hezurren azpian bakarrik, baina horrek egiten du oso gertukoa, oso intimoa. Non hasten da zerua? Zaila da esaten, ezta? Ba hezurren azpia ere hortxe hasten da.

Objektu txiki eta gertukoak hautatzen dituzu gai potoloagoez aritzeko. Aspaldian, joera zabaldua da.

Nire kasuan behintzat, txikia dena oso garrantzitsua da. Ikara handia sortu dit handitasunak beti. Zerbait txikitik hasten naizela pentsatu behar dut, handian pentsatzen hasten banaiz buruko ordenagailua blokeatu egiten zaidalako. Marrazten hasi nintzen Amsterdamen bolada txar bat izan nuenenean, eta gogoratzen naiz zigilu baten tamainako paper batean hasi nintzela marrazten. Dena ahaztu zitzaidan kolpetik. Zerbait txikitik hastea da ikarari ihes egiteko nire bidea.

Eta txikitasun horretan, gorputza oso presente. Extrasistolea kantak Eider Rodriguez eta Bihotz handiegia gogorarazi dizkit.

Ba bitxia da, ze Eider Rodriguezek ere egin du bere ekarpena diskoan. *Bihotz handiegia* irakurri nuenean zoragarria iruditu zitzaidan. *Gona* kantarekin bueltak nabilen orduan, eta bat-batean iruditu zitzaidan Eiderrek lagundu behar zidala horrekin. Ez nuen ezagutzen, baina lotsa galdu eta idatzi nion. Zirriborro bat bidali nion, eta irakurtzean esan zidan oso ederra zela, ez zuela uste ezer aldatu behar zenik. Baina galdera bat egin zidan eta kolpetik goitik behera aldatu zidan kanta: "kenduidazu gona" izatetik, "jar ezazu gona" izatera pasa zen. Bukatzean bidali egin nion, eta Eider izan zen kanta bukatua lehenengo entzun zuen pertsona. Berak esango du ez duela ezer egin, baina galdera huts batekin nola alda dezakeen dena... Gauza txikia da, baina ekarpen handia.

Gona kantak, modu jostarian bada ere, badu beste kanta batzuek baino aldarrikapen kutsu agerikoagoa, edo hala interpreta daiteke behintzat.

Nik interpretazioa zabalik uzten dut. Nire ustez badago feminismoaren begirada, baina hori baino gehiago da kanta. Gona elementua erabiltzen da, emakumeekin lotzen duguna, baina niretzat kanta horren mezu nagusia da bestearen lekuan jartzea. Berriz ere distantziaren kontua: nola elkartu, bestearen tokian jarrita. Hori da gona jartzea. Kasu honetan, gizona koak gona janzten duenean emakumezkoaren lekuan jartzen da, baina hori kantaren esanahietako bat besterik ez da.

"Grina epaitzea" erraza dela ere kritikatzeko du.

Hala dio kantak, eta uste dut baietz.

Ez bakarrik besteek zurea, baita nork berea ere. Grina beti izan da gizona koaren terrenoa: naturala da, ezin du kontrolatu. Emakumearena gauza itsusi kontsideratu da, edo existitzen ez dena. Hor dago juizio sozial guztia, Besteak beste, bortxaketetan gertatzen dena: edan zenuen? Gona zeneraman? Dantzan ari zinen? Hori oso mingarria eta gogorra da. Bortxatu batek ez du epaiketa tribunaletan bakarrik jasaten, baita epaiketa soziala ere. "Jantzi ezazu gona" dio kantak, pentsatu nahi dudalako gona ona dela, ez zaiola uko egin behar. Ez dela bakarrik genero batena, denona dela; eta, denon erantzukizuna dela gona hori eramatea. Ez elementu femenino bezala bakarrik, gauza on, fresko bezala ere bai.



Grina beti izan da gizona koaren terrenoa, emakumearena gauza itsusitzat jo izan da, edo existitzen ez dena"


Txakur berdea izateaz ere ari zara kanta batean. Hala sentitzen zara zu ere?

Harro egotea kosta zait, baina banaiz bai. Hala sentitu naiz beti. Ez naiz inongo parte sentitu. Nerabegarotik kosta zaidan zerbait da, zalantza askorekin bizi izan naiz, eta iruditzen zitzaidan besteak oso seguru zeudela beraien sentimendu eta konbikzioetan. Niri iruditzen zitzaidan presio-eltze bat nuela lehertzeko zorian barruan, eta ez nuela ezer ulertzen. Txakur berde izan naiz, kanpoan egonda hemengo izanda. Hemen bizi nintzen neurrian musika klasikoa eginda... *Very uncool*. Idazten dut baina ez naiz idazlea, musika egiten dut baina mota askotakoa... Baina egia da harro egon gabe bada ere, onartu behintzat onartu dudala. Bere onurak ere badauzka: "Tipa horrek idazten du; ez du oso ondo idazten, baina ez da idazlea". "Kantatu egiten du: ez oso ondo; baina ez da kantaria...". Beti dut aitzakia bat ihes egiteko. Txakur berdeak zorte hori ere badu. ●



LIBURUA

Miranderekin zer egin



GAUAZ PARKE BATEAN JON MIRANDE

ELKAR, 1984

ARITZ GALARRAGA

Tarte honetan berean, orain zortzi urte inguru, debate ezdeus bat ebazten saiatu ginen: Martin Ugalde, Gabriel Aresti, nor izan ote zen ipuina literatur genero moderno gisa landu zuen lehen euskal idazlea. Ebazten saiatu baino planteatu egin genuen, lehena nor izan zen ez baita sobera garrantzitsua; bai, ordea, jakitea garai bertsuan kezka bertsuei erantzun bertsuak ematen saiatu zela idazle bat baino gehiago. Hirugarren izen bat falta zitzaion konpetizio absurdu hari, ordea: Jon Mirande. Hori ematen digu aditzera *Gauaz parke batean* bildumak.

Azpitituluan *Ipuin izugarriak*, eta Patri Urkizuren edizioan, jasotzen dira “han-hemenka sakabanatuta zeuden ipuinak, *Herria*, *Euzko Gogoia*, *Gernika* eta *Egan* aldizkarietan”; bi sailetan

banatuta: itzuliak eta asmatuak, “elkarrekin harremanik baldin badute ere”. Interesgarrien guretzat hemen asmatuak –nahiz, Eduardo Gil Berak esan bezala, “ *fue un excelente traductor*”–, 1951-1963 artean argitaratuak. Bi *leit-motiv* darabiltzate, Urkizuren arabera: “Bat ia kontu guztietan: Izua. Bestea Irlandarako itzulpenean: Aberria”. Gil Berarentzat, aldiz, “*morir y matar*”, horiez dihardute ipuin guztiek –“*excepto uno que trata de la nostalgia*”–. Ametsa izenburuko ipuinak, esaterako, zeinean gizon batek bere emaztea akabatzen duen: “Zerendako ez zuen ulertu nahi ez zuela hark gaiztakeriaz joiten, maitate zuelakotz baizik?”, irakur daiteke bertan. Eta gauza goitikagarri gehiago. “Idazleak bere nahigabe bat fantasmazten du”, dio hitzaurreak.

Funtsean betiko debatea baitago, Miranderekin zer egin. Kezka ez da gaurkoa, ea inork literatura ona egin dezakeen eta, era berean, eta besteak beste, “*antidemócrata y racista*” izan. Afera zahar eta arantzatsua, artearen eta moralaren arteko harremanez hitz egitera behartzen gaituena, obraz eta berau sortu duen gizabanakoaz. Mirande idazle handi bat dena, aldiz, zalantzarik ez da, eleberrri ahaztezin baten egile, XX. mendeko euskal idazle garrantzizuenetakoa. Joxe Azurmendiren hitzekin esateko: “Hain txairo zen euskal literaturara Europako haize berrien igurtzea dakarkigute bere poema eta ipuinek”. Hartara, haren obraren bindikapena egiten jarraitu beharko genukeela iruditzen zait. Eta batez ere irakurtzen, lehen eskutik ahal dela. ●



DISKOA

Matxinadarako deia

BIZIKO BAGARA ERREGREEN BURUAK ZAPALTZEKO IZANGO DA ONKI XIN

OKX DISKAK, 2018



JOXI UBEDA GOIKOETXEA

Melodia politak eta askotariko erritmoak, biziak eta dantzagarriak entzun daitezke Onki Xin taldearen lehen diskoan. Samplerrak, scratchak, eta beste hamaika zaratzko, ñabardura, zertzelada eta xehetasun. Izan ere, taldeki-deek esaten duten bezala, Onki Xin leiho ireki bat da, eta bertatik sartu eta ateratzen dira haize mota ugari, besteak beste, Hegoaldeko haize epelak eta Iparraldeko haize hotzak. Rock, new wave, dance, funk, hip-hop, drum and bass eta beste hainbat musika estiloren ukituak, olerkiak...

Horrekin guztiarekin, matxinadarako erritmoak, melodiak eta hitzak sortu dituzte. Aldarri egin, bidegabekeriak salatu eta borrokarako deia egiten dute. Oro har, mezuak zuzenak dira baina bilatu beharreko mezu irekiak ere badaude. Altsasuko gazteen auzia, Maravillas, euskal presoak, errefuxiatuak, eta beste hainbat gairi buruz mintzo dira, baina bihotzarekin ere bai. Halaber, hitzetan, zenbait erreferentzia literario eta kultural antzeman daitezke: Rosa Luxemburg, Charles Bukowski, Julio Cortazar, Alejandra Pizarnik, Joseba Sarrionandia, Xabier Montoia...


Fer abeslariak eta Zigor DZ disko jartzaileak abiatu dute Onki Xin proiektua, eta grabazio saioetan zenbait kolaboratzaile izan dituzte: Joseba Ponce, Arkaitz Miner, Ibai Ros, Beñat Atorrasagasti eta Lizar Montagut Mendizabal. Grabazioa Peio Gorrotxategik egin du, eta azala eta diseinu lana Ramon Zabalegik.

Fer El Corazon del Sapo, Estricalla, Kuraia eta beste zenbait taldetan aritua da, hardcore, punk eta rock doinuak lantzen, eta Zigor DZ-k, Selektah Kolektiboa eta Esne Beltza taldeetan aritzeaz gain, disko jartzaile saioak egiten ditu, eta gehienbat hip-hop, reggae eta musika beltzean murgilduta ibiltzen da. Haien orain arteko ibilbideetan egindako urratsak eta izandako bizipenak eta esperientziak elkartu dituzte Onki Xin egitasmoan, bide berriak bilatzeko eta bestelako paraajeak ezagutzeko asmoarekin.

Bidaia hasi berria dute, eta zeresana emango dute. Jadanik ematen ari dira. Hasteko, oso disko ona egin dute. Kantak gustura entzuten dira. Indarra, adorea eta kemena transmititu eta kutsatzen dute, gogo eta aldarte onarekin. ●



FER ETA ZIGOR DZ. ARGAZKIA: ONKI XIN.



Gazte bete sormen

IRATI MAJUELO ITOIZ
LAURA MOSCOSO VILA

Topagunea dira lagunak, kontzertuak, txandak, kanpina, hitzaldiak, resakak eta... bai, Euskal Herriko gazte sortzaileak ezagutzeko aukera ere bai. Horretarako zegoen aurten bereziki Lemoan Gazte Sortzaileen Plaza, gazteak sortzen dabiltzana entzun, ikusi eta dastatzeko gunea. Karpatik pasa ziren trapzaleak, txelo jotzaileak, antzerkilariak eta dub bibrazioak. Baina oholtza handiaren bizkarrean, gaztetxeko areto eta geletan ere sortu ziren hainbat proiektu eta emanaldi interesgarri. Hara hurbildu ginen igande bazkalostean, ez egunik onenean (oraindik bizirik?), ezta orduarik onenean ere (siesta, agian?), baina emateko zutena jasotzeko gogoz.

“Tripak: huts bete hots” zioen egitarauak. Huts, nahiko huts zegoen gaztetxea hamar minuturen faltan, oraindik begietako bekarrak kendu eta azken uneko kafea hartzen duten gazteak hartzeko zain. Eserlekuak betetzen joan ziren ordea, eta aretoa txukun geratu zen korte-

siazko bost minutuak pasatzerako. Publikoa isilik, artistak noiz agertuko. Haien ordez bideo bat, paper zimurtuz estalitako egitura batean proiektatua. Lanpara itzali bat, aukitxo bat eta koaderno bat lurrean botata. Edozer pasa liteke, eta publikoa edozertarako prest dago.

Bi lagun agertu dira, naturaltasunez, ohiko kontuei buruz hizketan, erraietatik datozkien oihartzunak taularatzen. Denok berdin ikusten al ditugu koloreak? Ni naiz? Zu? Noraino naiz ni, noraino zu? Elkarrizketa eta poemen bidez nitasunaren eta kolektibotasunaren arteko harremanei buruz hausnarrarazten duen ikuskizuna topatu dugu, non eta gaztetxe batean. Adibide hoberik ezin liteke egon subjektiboa eta politikoaren arteko zeharkaldiak eszenaratzeko. Emanaldiaren hasieran hartutako hari muturretatik tiraka jarraitu dute saio guztian zehar bi lagunek, orain hitzez, orain idatziz, baita ikus-entzunezko eta gorputz adierazpen bidez ere, tripetako hutsak hotsez harilkatzen.

“TRIPAK: HUTS BETE HOTS” IKUSKIZUNA

NOIZ: Apirilak 21
NON: Gazte Topaguna, Lemoa

Erabilitako bideo eta grabaketek sorkuntzaren istorioa osatzen dute gainera, eguneroko batetik lapurtutako pusketak eszenaratzean txertatu izan balituzte bezala. *Making off*-a obran bertan plasmaturia. Metaobra bat, azken finean. Bideo, hausnarketa, kanta, poema, keinu, errezitaldi bakoitzak azal bat eransten dio obrari, barnekoak biluztu eta hautemandako hutsuneak jantzeko aukera emanez. Korapiloak egin eta desegin, artilezko jantzieta bezala.

“Tripak: huts bete hots” Eguzki Donnellan Armengod eta Haizea Beruete Lopetegi hasiberrien sormen proiektua da. Gasteizko Gazte Sortzaileak bekari esker sortu dute ikuskizuna bi artistek, Itziar Rekalde Luzarragaren gidaritzapean. Duela gutxi egin zuten lehen emanaldia Gasteizen bertan, eta oraindik ere estrenatzeke omen dituzte zenbait eszena. Beraz, hasi berriek hasi berri duten bira segi, eta ea zer oihartzun ekartzen dizuen tripen hotsak. ●



Hitz gezidunak

1 KETARI		GAUGIRO, GAUEKO EGURALDI ----- GAIZKI ESAKA ARITU	ERROMAKO ZUBI ----- BELDUR BIZI	NAHASIA ----- INTSEKTU MOTA	FRANTSESEZ, KALEA ----- SABELA	2 IÑAKI LL	
3 MESEDE, FABORE		GAU DEN- BORA ----- KILOA				ERRUSIAKO ENPERADORE ----- ELEMENTU KIMIKOEN NAHASTEA	ZIURTASUNEZ ----- OTOITZA
2 URANIOA		PIRATEN EDARIA ----- ZEIN TOKITAN	MUSIKA- TRESNAK TONUAN JARTZEKO ----- ZERGATIK	ERRUDUN- TZAT JO ----- 4			
KONTSONAN- TE EZ DENA ----- JAPONIAKO MONETA			TXAKURRAK ----- NESKA GU- RASOEKIKO		ERORI ADITZAREN ERROA ----- NAFARROAKO HERRIA		IKUSI (LA- BURDURA) ----- TONA
XABIER ARMENDARIZ 			ARROKA BOLKANIKOA ----- BATZERA BEHARTU		ARKU ----- BEGIRADA (ALDERAN- TZIZ)		
3 		ARTE- ESTILOA ----- IRUDIKAPENA					

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1 ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	1					8	6
	7		6	8			
	5			1	7		3
	9	2					4
	8	1	7	9			
5			4	7			
7	9	8			1		
		5	7		2		
2	4				6		

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Apur, pixka.
2. Oinez mugitu.
3. Eskari edo salmenta handiak.
4. Ile-multzotrinko.
5. Elementu kimikoa.

EBAZPENAK

1. PITIN
2. BILBI
3. TIRAK
4. ILAIE
5. NIKEL

7	9	8	6	9	1	3	5	4	2
6	7	4	2	9	7	3	1	8	8
7	8	5	1	6	9	7	3	1	8
5	2	3	6	9	4	1	7	8	
4	8	6	1	3	7	5	9	2	
1	9	7	2	8	5	6	3	4	
6	5	8	9	2	1	7	4	3	
3	7	2	4	6	8	9	5	1	
9	1	4	7	5	3	2	8	6	

Maria Eugenia R. Palop

FEMINISMOA FAXISMOARI
AURRE EGITEKO



AKADEMIAN ETA KALEAN, FEMINISTA

“Doktore tesitik hasita, hiru lerro nagusiren ikerketan aritu izan naiz: feminismoa, ekologismoa (beti elkarrekiko loturan, ikuspegi ekofeministatik) eta bakea, biktimekin lotua. Frankismoaren, terrorismoaren eta eskuin muturraren biktimen inguruan lan asko egin dut. Zuzenbidearen filosofia eta giza eskubideen inguruko klaseak ematen ditut. Unibertsitatetik kanpora ere aritu naiz sarri, dibulgazio taldeetan, gizarte zibileko elkarteetan, pentsamenduan, eta baita instituzioetan ere. Besteak beste, En Comú Podem taldeko koordinatzailea izan naiz parlamentuan. Oraingoan, Europako hauteskundeetarako Ahal Duguren zerrendaburua naiz, baina erabat independentea naiz, ez naiz sekula alderdi batean izen emanda egon”

“Feminismoa da antidotoaren antidotoa”

Eskuin muturra indartzen ari den honetan, feminismoa da fenomeno horri aurre egiteko tresnarik eraginkorrena, Maria Eugenia R. Palopen iritziz. Biak hutsune eta porrot beretatik jaio direla uste du, baina erantzun antagonikoak direla izatez. Eskuin muturrak gizarte itxi eta punitibista proposatzen du, eta elkarrekiko zaintzan oinarritutakoa defendatzen du feminismoak. Horregatik balio du bigarrenak lehenari aurre egiteko.

 ANDER PEREZ
 JOSU SANTESTEBAN

Zer aldatu da eskuin muturraren mehatxua benetakoa izateko?

Lehen ezohikoa zena gehiengo izateko bidean da. Eskuin muturreko alderdiek Europako Parlamentua kontrolatzeko aukera dute. Honez, kero eskuin muturreko 39 alderdi daude European, gehiengo sozialak arriskuan jartzen dituztenak: po-break, etorkinak, emakumeak eta oro har munduaren %99a, jende zaugarriena. Erretorika protekzionista erabiltzen dute, ustez gehiengo alde aurkeztuz, baina badakigu haien praktika ez datorrela bat diskurtso horrekin.

Zure esanetan, oinarri beretik sortzen dira eskuin muturra eta feminismoa.

Eskuin muturrak beldur eta isolamendu egoera bati erantzuten dio, eta egoera hori erreala da, 80ko hamarkadatik gaur egunerako politika neoliberalak sortu du. Feminismoa ere bada egoera horrekiko sentikorra. Hain justu, nik defendatzen dudana feminismoak, feminismo erlazionalak, erdigunean jartzen du dependentsia

eta zaugarritasuna, dependentsiak izan ohi duen estigma ezabatuz. Menpekoei zuzentzen zaie, zaugarriari, beldur direnei, eta komunitate ezberdin baterako esperantza ematen die.

Bi erantzun antagoniko dira beraz. Zein da aldea?

Eskuin muturrak pobreak dio beldur, eta feminismoak pobreak dio. Eskuin muturra pobreak dio beldur da, eta feminismoa aberatsen diru-gosearen beldur. Eskuin muturrak etorkinari dio beldur, feminismoak erbesteari. Oso ezberdina da arrazoen edo ondorioen beldur izatea.

Bi erantzun aukerazko badira, nola egin jendeak feminismoa aukeratu dezan?

Jendearentzat erakargarri egiteko, pedagogia egiteko, feminismoak badu alde on bat: bizi esperientziarekin lotuta dago, bizitzatik abiatzen den teorizazioa da. Denok izan gara zainduak eta denok zaintzen dugu, eta denok gara elkarren menpeko, bizitzaren une batzuetan gehiago. Beraz, ez dio ezezaguna den ezeri



“EZ DA IZAN ARGIKI EMAKUMEA MESPRETXTATU DITUEN AUTORITARISMO MATXISTARIK, EMAKUMEA MITIFIKATZERA ERE IRITSI IZAN DIRA, BAINA GERO ESPAZIO PUBLIKOAN AZPIRATU EGIN DUTE”.

egiten erreferentzia. Horretan ere badu antza eskuin muturrarekin, honek ere oso identifikagarriak diren gauzei egiten baitie erreferentzia. Bizitzarekiko lotura horrek bihurtzen du garaile mugimendu bat, eta eskuin muturrak egiten du, baina baita feminismoak ere. Bi bide oso ezberdin dira, baina bientzat da oinarri bizipena. Sozialdemokraziak, hain justu, horretan egin du porrot, bizitzaren esperientzietatik oso urrun dauden erreferentziak egin dituelako.

Zer dira zaintza lanak zuretzat?

Zaintza lanek erabat aldatzen dute logika. Erantzun punitibistaren aurrean –tira, bada feminismo punitibistarik ere–, segurtasun eta harresien politiken aurrean, guk beste zentzu batean aurkezten dugu segurtasuna: bizi ahal izateko beharrezkoa dena edukitzea. Milizien segurtasunak ez digu segurtasunik ematen. Segurtasuna etxe batek ematen digu, bizi ahal izateko lehengaiak edukitzeak, ura izateak.

Zaintzek bermatzen dute hori?

Zaintzea hain justu hori da: komunak diren ondasunez arduratzea.

Zaintza lanak erdigunean jarri izanak eraman du borroka feminista iraultza izatera?

Bai, eraldaketa soziala da, begirada eta logika erabat aldatu dituelako. Azpimarra erantzukizunaren kulturaren jarri behar da, eta ez hainbeste eskubide klasikoaren kulturaren. Eta ez dut esan nahi eskubideak aldarrikatu behar ez direnik. Bai, baina ez pistola gisara ulertuta, besteengandik defendatzeko, baizik eta modu erlazionalean, elkarrizketarako zubi gisara. Gure gizartea eraikitzeko orduan eskubide zibilak jarri izan dira lehenengo, eta gero etorri dira eskubide politiko eta sozialak. Pentsa aldebegingog bagenu: lehenbizi gizartearen kohesioa eta justizia soziala, eta hortik etorri daitezela norbanakoen eskubideak. Pentsa zein ezberdin litzatekeen.

Eskuin muturrak feminismoa bereganatu nahi du?

Marine Le Penek egin zuen feminista bezala agertzeko saiakera bat, baina bere bidelagunak feminismoaren kontra aurkeztu dira erabat, ez dute borroka hori bere egin nahi izan. Edo, asko jota, emakume tradizionalaren nolabaiteko defentsa egin dute, frankismoan egin zitekeen bezala.

Baina horri ezin zaio feminismo deitu.

Baina kontziente dira gaia erdigunean dela.

Hori da. Ez dira saiatzen feminismoa berenganatzen, ez dira horrekin identifikatzen, baina noski, programa oso bat dute emakumeentzat, eta programa hori bihurtu dute ardatz: lan merkatutik bota nahi gaituzte, etxera itzuli gaitezen, familia heteropatriarkalaren menpe. Diktadura eta autoritarismo matxista eta misogino guztietan eman da hori. Ez da izan argiki emakumeak mespretxatu dituen autoritarismo matxistatik, emakumea mitifikatzera ere iritsi izan dira, baina gero espazio publikoan azpiratu egin dute.

Antidotoaren antidotoa. Hori da zuretzat feminismoa.

Eskuin muturrak neoliberalismo erradikalari eta alderdi sozialdemokraten porrotari erantzuten dio, eta horren aurkako antidototzat du bere burua. Oligarkien eta elite ekonomikoaren kontra borrokatzen dutela diote, eta antidoto gisara agertzen dira. Nik diodana da feminismoa dela antidotoaren antidotoa, erantzuna garelako. Ez haiena bakarrik. Gehiagorena ere bai. ●



Realak Pablo Casado fitxatu nahi du entrenatzaile gisa datorren denboraldirako



Realeko zuzendaritzak iragarri duenez, Pablo Casado taldeko entrenatzaile posturako fitxatzeko negoziazioak nahiko aurreratuta daude. Klub txuri-urdineko iturriek diotenez, taldearen filosofiarekin bat egiten du PPko liderrak: dena irabaztera ateratzen da, ia dena galtzen

du, baina ezer pasako ez balitz bezala jarraitzen du. "Entrenatzaile perfektua izango litzateke 2019-2020 denboraldia hasteko. Gero badakigu zer pasako den: kalera botako dugu eta Imanol jarriko dugu denboraldia salbatzeko", azaldu dute Realeko iturriek. ●

SAREAN ARRANTZATUA



–Orduan, handik atera behar dut?

–Hogeigarren aldiz: BAI



#UNFOLLOW



Bere burua ezagutzeko Indiara bidaiatu duen pertsona batek deskubritu du tontoa dela

"Benetan nor naizen jakiteko deskonektatu egin behar nuen eta horretarako noa Indiara", idatzi zuen Arkatz Lopez oiartzuarrak Facebooken bere bizitza markatuko zuen bidaiari ekin aurretik. Indiara iritsi ostean, bi hilabetez ez zuen ezer argitaratu. Senideak kezkatu egin ziren telefono deiak erantzuten ez zituela ikusi zutenean eta azkenik India-

ko poliziarekin kontaktuan jarri ziren 43 urteko gizasemea bilatzeko. Taj Majal parean eserita aurkitu dute, lur jota: "Tontoa naizela deskubritu dut", adierazi du Lopezek, egindako negarrarengatik deshidratatuta. Senideek lasaiago daudela diote. "Hori deskubritzeko ez zuen zertan haraino joan", adierazi dute, beren aldetik, haren koadrilakoek. ●

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra,1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



Bizi nahi duen herria!

Jende gehiagori
ahotsa emateko,
lagun gehiagorengana
heltzeko eta
eragiten jarraitzeko
EGIN ARGIAKOA!